



# ARGIA

## KANPAINA EPELEAN BOTEREA GOXO

**Hauteskundeen azterketa  
soziologiaren eta komunikazioaren ikuspegitik**

ERAIKI  
EUSKADI  
MIRA AL  
FUTURO



» YAYO HERRERO EKOFEMINISTA, BIZITZA DUINAREN ALDE

» LARRUN: URAREN NEGOZIOA NAFARROAN

» ZERGATIK BOZKATZEN DUTE TRUMP AMERIKAKO ESTATU POBRE ETA KUTSATUENETAN?



# ARGIA 2017ko egutegia

*Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz janzteko.*

***Ez beldurrik izan  
datorrenari...  
eskatu orain 2017ko  
ARGIAren egutegia.***

Buruketak

Galdetzea libre

Atzokoak gaur

Santuak

Euskal izendegia

Eguzkia, ilargia eta mareak

Egutegia

9€

50€

Egurrezko  
taula  
egutegia  
opari



☎ 943 371 545

[www.argia.eus/denda](http://www.argia.eus/denda)

[denda@argia.eus](mailto:denda@argia.eus)



**PANORAMA**

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Net Hurbil
- 17 Hor dena gailu
- IRITZIA**
- 18 Baleren Bakaikoa Azurmendi
- 19 Iñaki Antiguada  
Miren Artetxe
- 20 Iñaki Martinez de Luna
- 21 Irati Elorrieta



*AEBetako estatu pobre eta kutsatuenetan Donald Trump izango da nagusi. Zergatiak aztertu ditugu Net Hurbil atalean. (ARGAZKIA: MICHAEL VADON-CC BY SA)*

- 39 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:  
AITOR ETA AMAIA MERINO
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

**SAKONEAN**

- 12 | Juan Gorriti, eskultorea: "Nirea da Art-behar, Art-natur, Art-denbora..." / Reyes Iltxeta
- 22 | Legebiltzar berrituan ere, aldaketarako aukera lausoak? / Lander Arbelaitz - Axier Lopez
- 27 | Yayo Herrero: "Jendeak jakin behar du bizitza duina zer den, zer behar den eta zer ez" / Sara Arruabarrena Azkarate
- 30 | Urrea Ondarroako txalupetan, edo nola erosi zituzten jeltzaleek armak gudarientzat / Urko Apaolaza Avila
- 32 | Lucía Gricman, psikologoa: "Zure eromena bizitzaren aldekoa da? Orduan arazorik ez" / Mikel Garcia Idiakez
- 34 | Atzoko, gaurko eta biharko Gasteiz euskalduna ezagutzen / Onintza Irureta Azkune
- 36 | Merkurioaren kutsadura mugatzeko legedia egokitzeaz da Europar Batasuna / Igor Agirre
- 44 | Lekeitio eta Kataluniaren arteko sua / Ale Goikoetxea

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.


**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundua


**Gipuzkoako Foru Aldundia**


DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARU DITZAKEZU,  
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

**Jabetza:** Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.  
**Lehendakaria:** Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.  
**Erredakzioa:** Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Ander de la Hoz, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Sara Arruabarrena, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.  
**Diseinua:** Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.  
**Produktzioa:** Antza S.A.L.  
**Harpidetza:** Iratiz Agirre.  
**Salmenta:** Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.  
**Idazkaritza:** Aloña Sorraluze, Bego Zuza.  
**Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.  
**Web garapena:** Asier Iturralde.

**HELBIDEAK:**

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.  
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.  
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.  
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

**POSTA ELEKTRONIKOAK:**

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.  
Interneten: www.argia.eus.  
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.  
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

**HARPIDETZA:**

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.  
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.







A woman wearing a yellow jacket, a dark cap, and dark pants is standing in a rocky, cave-like environment. She is holding a long, thin wooden staff or pole. The background consists of large, dark rock formations. The lighting is dramatic, with strong highlights and deep shadows.

PANORAMA

## Burgostik Pasaiara itzainen atzetik

Burgos, Errioxa, Araba, Nafarroa eta Gipuzkoan barrena heldu dira Pasai San Pedrorra bike eta alkitran upelez betetako hiru gurdiak. Desagertzeko zorian dauden idi eta mendi-behiek (200 ale baino ez dira geratzen) tiratuta osatu dute ibilbidea, duela zenbait mende egiten zen bezala. Aurretik itzainak eta atzean hamaika lagun zutela sartu ziren hilaren 19an Albaolaren eraikinera. Han eraikitzen ari diren XVI. mendeko San Juan baleontziaren erreplika zuten zain.

Argazkia: Mendi Urruzuno





### Krisiaren ondorioak

EAEko biztanleen eroste ahalmena lau puntu jaitsi da krisia hasi zenetik. Soldatak eguneratzeke dituzte 400.000 langilek

[argia.eus/multimedia](http://argia.eus/multimedia)



### Baliabideen ebasketa Kolonbian

Vera Samudio, errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuko eragin arduraduna Kolonbian, eta Gasteizko alkate ohi Jose Angel Cuerda, buruz buru nazioarteko lankidetzaz solasean.



### Sarako kabalkada

100 bat saratarrek parte hartuko dute herrian lehen aldiz antolatu den kabalkadan. Herriko zenbait istoriotan oinarrituta, plaza auzitegi bihurtuko dute urriaren 9an.



MANUEL ROBLES-ARANGIZ FUNDAZIOA

## Polemikarekin hasi da Bizkaiko adinekoen egoitzetako greba

Sara Arruabarrena Azkarate

@s8ara

Hasi da ELA sindikatuak deitutako bi asteko greba Bizkaiko adinekoen egoitzetan. Unai Rementería Ahaldu Nagusiak sindikatuari ohartarazi dio "edozein greba eskubideren gainetik adinduen duintasuna" zegoela. EH Bilduk, berriz, adierazpen horiek egin eta oso gutxira egoitza bateko bi langile kaleratu izana salatu du.

*Deia*-k jaso zituen hilaren 15ean Rementeríaren adierazpenak, hainbat komunikabidek argitara emandako txosten baten harira egindakoak. Informazio horren arabera, egoitzetako langileek ekainean egindako greba zela-eta adinduak "arretarik jaso gabe" egon ziren. Rementeríak adierazi

du "bere esku dagoen guztia" egingo duela eta gogorarazi du txostenean aipatzen den ekaineko greban gutxieneko zerbitzuak areagotzeko eskatu zuela.

Bizkaiko Foru Aldundiak langileen greba eskubidearen aurrean duen jarrera "lotsagarritzat" jo du EH Bilduk. Rementeríak ELAren greba deialdiari buruz egindako adierazpenei erantzun die koalizioak, eta adinekoen duintasuna bermatzea "beharrezko baliabideak daudela" ziurtatzea dela esan du, baita "bertako langileen baldintzak duinak" direla bermatzea ere.

Asteko 35 orduko lanaldia, soldata igoera duina, baja-egoera hobea eta gehiegizko lanaren arazo "larriari" irtenbidea ematea dira ELAk grebaren bidez lortu nahi dituen aldarrikapenetako batzuk.

## "Batasunak iraungo badu, immigrazioarekiko jarrera irmoa hartu behar du"

**DONALD TUSK, EUROPAKO KONTSEILUKO PRESIDENTEA**

Errefuxiatu krisia izan zen Europako Kontseiluak irailaren 16an Bratislavan egindako bileraren gai nagusietako bat. Haren atarian, "Batasunak iraungo badu, immigrazioarekiko jarrera irmoa hartu behar du" adierazi zuen Kontseiluko presidentea Donald Tuskek. Behin gailurra amaituta, honakoa esan zuen bertan erabakitakoaz: "Ezin dugu berriz ere utzi errefuxiatuak kontrolik gabe Europara irits daitezen; milioika europarrek segurtasun falta sentitzen dute". **2016-09-14**





# BOTERE NUKLEARRA

**1945-07-16**

Lehen test nuklearra egin zuten AEBek.

**1949-08-26**

Lehen test nuklearra egin zuten SESBek.

**1963**

Froga nuklear atmosferikoak debeku partziala.

**1966**

Froga atmosferikoak ez ezik, itsaspeko eta lurpeko froga guztiak ere debekatzeko hitzarmena.

**2016-09-09**


Orain arteko azken froga nuklearra. Ipar Koreak 10 kilotoiko bomba lehertarazi zuen lurpean. 5,3ko lurrikara eragin zuen.

## OJIBA NUKLEARRAK

2014ko datua



1945etik 2016ra **2.155 FROGA NUKLEAR** EGIN DITUZTE MUNDUAN



GARBINE UBEDA GOIKOETXEA





Ubidearen Lehenengo Zatia, Pitillasen.

IKER ADALID CIA-CC BY SA

## Adio Nafarroako ubidearen Bigarren Zatiari

Xabier Letona

@xletona

Ez da egingo Nafarroako ubidearen Bigarren Zatia (71 km, Pitillas-Ablitas), ez behintzat hasierako proiektuak aurreikusituen zuten gisan, aire librean, Ebro eta Aragoi ibaiak gainditzeko sifoi erraldoiak eginez eta ezaugarri konplexu haiekin.

Baina egingo da? Hori ere ez dago garbi. Aldaketaren Nafarroako Gobernuak iragarri zuen urte amaierarako egingo zuela Erriberako hegoaldeko eskari eta beharrei buruzko azterketa. INTIA enpresa publikoa egiten ari da lan hori eta 2016ko bukaera aldera aurreikusituen da emaitzak izatea.

### Parte hartze prozesua iragarri dute

Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko zuzendari nagusi Ignacio Gilen esanetan, behin azterketaren emaitza ikusita, 2017an parte hartze prozesu sakona egingo da herritarren artean, eta bereziki nekazarien artean. UPNko gobernuaren moldeak ere hautsi nahi dituzte: "Ez ditugu lehenik hodiak jarriko eta gero hitz egitera joan". Debaterearen ondoren, ubidearekin zer egin

erabakiko du Gobernuak, baina Gilek aurreratu du jada mahai gainean egongo direla "bai ubidea bai beste alternatiba batzuk".

### Beharrezkoa da?

UPN, PP eta PSNren asmo zaharra da Nafarroako ubidearen Bigarren Zatia; horren bidez Erriberako hegoaldea urez hornitu nahi zen. Itoizko urtegiaren eta ubide honen aurka agertu diren eragileek beti aipatu dute ongi dela Erribera urez hornitzea, baina horretarako ez dela behar halako proiektu erraldoirik.

### Galera ekonomiko handiak

Nafarroako ubidearen Lehen Zatia (98 km, Agoitz-Pitillas) amaitua dago jada. 2012an Lehen Zatiaren Hedapena (21 km, Arga-Ega arroetan) eraikitzen hasi zen eta 2019rako amaitzea aurreikusituen da. CANASA enpresa publikoa arduratzen da kudeaketaz, eta azken bi urteetan galera handiak egin ditu: 2014an 8,6 milioi euro galdu zituen eta 2015ean 10,4. Galera horiek ikusita, Gobernuak behin baino gehiagotan adierazi du zentzuzko zerbait egin nahi duela, administrazioarentzat eta nekazariarentzat jasangarria izango den zerbait.

## EKONOMIAREN TALAIAN

### Lapurrak eta gezurtiak



Juan Mari Arregi

Bai, irakurri duzuna, lapurrak eta gezurtiak. Horrelaxe izenda ditzaiegeku banku handietako eta Espainiako Gobernuko arduradun nagusiak. Epaimahai independente baten aurrera eraman beharko genituzke, epaitu ondoren lapurtutakoa itzuli eta dimititu dezatela derrigortzeko. Ez da txantxa. Batzuek eta besteek, alderdietako politikariek nahiz Espainiako Bankuko agintariek, bazuten horren berri, baina isilpean eduki zuten.

Orain jakin da Espainiako Estatuak galdutzat eman dituela bankuei finantza krisiaren erdian birkapitalizatzeko utzitako milaka milioi euro. Espainiako Bankuak onartu du finantza sistemari utzitako 51.303 milioi eurotik %5 baino ez duela kobratu. Erakunde horrek berak gauza okerrago bat esan du: estatuak zergadunen dirutik jarritako 26.300 milioi euro -BPGren %2,6- betiko galdu direla, gobernuak Espainiako Parlamentuan hiru bider hitz eman zuen arren herritarrek ez dutela krisia ordainduko. "Bankuak ordainduko du", "zergadunari ez zaio euro bakarria ere kostako", "maileguak ez du gizartearengan kosturik izango, alderantziz baizik"... Rajoy, Sáenz de Santamaría eta De Guindosen adierazpenak dira horiek.

Iruzuraren ondorioz galdutzat eman diren 26.300 milioi euro horiekin, gobernuak saihestu zitzakeen osasungintzan eta hezkuntzan egindako 16.000 milioi murrizketak, baita pentsioak eta laguntza sozialak handitu ere. Zergadun baikoitzari -euskar herritarrek barne-600 euroko zuloa utzi dio iruzurrak. Bankariak, politikariak eta amarruaren gainerako arduradunak epailearen aurrera eraman beharko liriteke, dirua itzuli, dimitituarazi eta bizitza osorako inhabilitatuak izan daitezten, lapurrak eta gezurtiak baino ez baitira.



DANI BLANCO

## Protestek eten dute Zinemaldiaren hasiera ekitaldia

**DONOSTIA.** Ibon Iparragirre eta preso gaixo guztien aldeko oihuek eta pankartek hiru aldiz eten zuten Zinemaldiko irekiera ekitaldia. Horien ostean Gipuzkoa Zutikeko kide bat agertokira igo eta ekitaldia zuzenean ematen ari ziren telebista kate guztietara eraman zuen errausketaren aurkako aldarria.

## Ezkiotik bereiztearen alde bozkatu dute Itsason

Sara Arruabarrena Azkarate / Unai Brea

@s8ara / @unaibrea

Aldeko 88 boto nahikoa izan dira Itsaso Gipuzkoako 89. udalerria bihurtzeko, irailaren 18an egindako bozketan. 26 herritarrek bozkatu zuten Ezkiotik banatzearen aurka, eta lauk zuri. Urtea amaitu lehen desanexioa gauzatzeko duela iragarri du Foru Aldundiak.

### 1964tik batuta

Frankismoko lege batek elkarrarazi zituzten Ezkio eta Itsaso 1964an. Berrito udala izateko prozedura 2011n abiatu zuen Itsasok, eta joan den martxoan onartu zuen Ezkio-Itsasoko Udaletxeak desanexioa, aho batez.

### Urquijoren helegitea

Carlos Urquijo Espainiako Estatuko EAeko ordezkariak helegitea aurkeztu zuen irailaren 12an Itsasoko herri-galdeketa bertan behera uzteko. Gipuzkoako Lurralde Auzitegiak baztertu egin zuen eskaria.

### Eta Igeldo?

Epaitegiek ez diote trabarik jarri Itsasok udal izaera berreskuratzeari. Aldiz, Igeldok 2013an egindako galdeketa emaitza, Donostiatik irtetearen aldekoa, baliogabetuta dago 2014ko otsailetik.

### ETXEGABETZEAK



57

etxegabete egin ditu 2016ko lehen hiruhilekoan Alokabidek, alokairu soziala kudeatzen duen Jaurilaritzaren erakundeak.

800

euroko diru-sarrerak dituzte Ertzaintzak Gasteizen kaleratutako emakumeak eta haren bi semeek; luzaz 325 euroko alokairua ordaindu gabe zeuden.



### GREENPEACE-BILBO AKORDIOA

2030erako garraioak sortutako gas emisioak erdira murrizteko konpromisoa sinatu du Bilboko Udalak Greenpeace elkarte ekologistarekin. 2017an aurkeztuko dute mugikortasun plana.



### DURÃO BARROSO IKERTUKO DUTE

Europako Batzordeak ikertu egingo ditu erakundeko presidente ohi José Manuel Durão Barroso Goldman Sachs finantza-enpresarentzat lanean hasi izanaren ondorio etikoak, europar Arartekoaren eskari bati jarraituz.



### ZINEMALDI ALTERNATIBOA

Donostia \$aldu eta Suntsitu kolektiboak hartu du bere gain 8. edizioaren antolaketa. Kritika soziala izango du ardatz sei egunez. Kortxoenearen erasketaren ostean, hiriko gainontzeko gune autogestionatuetan egingo dituzte proiektioak.



# Mixeria eta kutsaduratan itota gaudenok zergatik maite dugun Trump?



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Beti kontserbadore bozkatzen duten estatuetao herritarrak AEBetako beste estatuetaoak baino pobregoak dira, gutxiago eskolatuak, osasun txarragoa dute, estatu liberalenetakoek baino 5 urte gutxiagoko bizi itxaropena. Estatu *gorriak* –errepublikarren kolorea– txapeldun dira industriak eragindako kutsaduratan ere. Zergatik bozkatu dute ingurumena zaintzeko legeak ezabatuko dituen Donald Trumpen alde?



Arlie Hochschild (1940) soziologo iparramerikarrak ulertu egin nahi zuen: zergatik dabilta sistema neoliberalak gehien kaltetu dituenak Tea Party mugimenduan eta Donald Trumpen aldeko kanpainan? Aurretik beste soziologo batek, Arthur O'Connorrek, erakutsia zuen 1992tik 2008a arte lehendakarietarako egin bost hauteskundeetan beti errepublikarrek irabazitako 22 estatuak direla ingurumen kutsadura arazo larrienak pairatzen dituztenak.

Erantzunen bila Hochschild andereak bost urteotan, bere 76 urteekin, Kaliforniako Berkeley liberaleko erosotasunetik aldendurik behin eta berriro jo du Louisianako zingiretan krisi ekonomikoak eta multinazionalen kutsadurak izorrotutako jendeak elkarrizketatzera.

Haien arrazoiak entzunez ikasitakoak bildu ditu *“Strangers in Their Own Land: Anger and Mourning on the American Right* (Beren lurrian atzerritar: haserrea eta dolua AEBetako eskuinean) liburuan. *The Guardian* egunkariak aurerratu du atal oso bat, honela hasten dena: “AEBetako politikaren ‘Paradoxa handiak’ esplikatu dezake Trumpen arrakastaren sekretua”.

Behin eta berriro lagun egin arte soziologoak bisitatu dituenetako bat da Lee Sherman, 82 urte, gaztetan futbolari izandako gizona, gaur *taka-taka* batez lagundurik nekez dabilena. Ez du kexurik, halere: petrokimikako faktoria batean lanean aritu ostean, taldean ziren 15 obreroetatik bera da bizirik dirauen

bakarra. Lanik arriskutsuenetan ari izana baita Sherman.

1965ean hartu zuten PPG Pittsburgh Plate Glass konpainian, eta teknikari ona izaki, bere ardura zen kutsagai arriskugarriak zeramatzaten hodietao matxurak konpontzea, egunero borrokatuz dikloroetano, merkurio, berun, kromo, hidrokarbuo aromatiko polizikliko eta dioxinekin. Istripuen artean eskapada galantak egin da Sherman. Konpainiako nagusiek gehiago behar, ordea, eta usinako lanik arriskutsuena izendatu zioten.

PPGren faktoriak sortutako hondakin kimikorik pozoitsuena, dikloroetanoaren fabrikazioak labe handien barrenean utzi pasta likatsua, kamioiz eraman behar zuen Bayou d’Inde zingira ederrera. Zabor arriskutsuak bero-bero iritsi behar zuen, solidotu aurretik arrastorik utzi gabe erriko ur ilunetan hondoratu zedin.

“Badakit ez nuela ondo egin”, diotso soziologoari. “Toxinek hil egiten dute. Benetan sentitzen dut egin izana”. Urtean egin zuen garraio hilgarria Shermanek, azkenean ugazabengandik eruki gutxiko ordaina jasotzeko.

Kimikoekin bera ere gaixoturik, zortzi hilabetez etxean egon behar izan zuen medikuen aginduz. Lanera itzultzean, hamabost urtez hutsik egin gabe enkar gurik lanjerosenak konplitu ostean, absentismoa aurpegiratu zuten.

Lee Shermanek maite ditu Louisianako *Bayou* deitu padurak, hango bizi-

modua eta jendeak, arrantzaren inguruko mundua. Eta ondo demostratua du. 1987an, zientoka fabrikak Louisianako padura paradisiakoetan bota izan eta oraindik botatzen dituzten pozoien erruz, AEBetako agintariek neurri zorrotzak ezarri zizkieten bertako arrantzaleei. Gobernuaren ordezkarien eta arrantzaleen arteko bilkura haietako batean Shermanek hitza hartuta ordu erdiz azaldu zien berak egindako garraio kutsagarria. Hala lortu zen arrantzale bakoitzarentzako 12.000 dolarreko kalte-ordaina.

## AEBetako “paradoxa handia”

Louisiana da AEBetako zabortege toxiko handiena. Auzo osoak suntsitzera iritsi dira kutsagaien ondorioak. Lehen bertako hondar kimikoak bezala, orain Pennsylvania eta urruneko beste estatuetao frackingak sortutako ur kutsatuak aintziraren hondoa zulatuta injektatzen dituzte. Ondorioz gertatu dira leherketak, lurrikarak eta baita etxeak eta are kale osoak ere irentsi dituzten lubakiak ere.

Jende asko mobilizatu da *bayouen* defentsan, talde eta koaliziotan bildu dira arotz, irakasle eta nekazariak, mugimendu sozialak ugaritu dira nonahi. Baina horietako gehienak errepublikanoen Tea Partyren inguruan mugitzen dira. Arlie Hochschildek urteotan elkarrizketatu dituen jendeen artean ohikoena hori da: beren bizitzako gertakizun nagusia izanik industriak trai-



Julie Dermanskyren argazkian, Mike Schaff Louisianako Bayou Corneko biztanlea, bertan hondakin industrial toxikoen eraginez lurrean sortutako leize handiagatik etxea husteratu behartua. Arlie Hochschild soziologoak egindako irudiaren arabera, Schaff Euskal Herrian ezkerreko elkarte ekologista batean ariko zen, frantsesa izatekotan Notre Dame des Landes okupatzen egon zitekeen, baina AEBetan Tea Partyren aldekoa da eta Donald Trumpen dauka jarritako itzaropena, ingurumenean eta ekonomian egin diotena baino handiagoa delakoan amerikar herritarren duintasunean egin dioten zauria.

zionatu eta zanpatu dituela, lanik gabe utzi, komunitate osoak suntsitu... hala ere berek sentitzen dute -eta bozkekin erakusten- traizioa AEBeko gobernu federalak egin diela. Ingurumen legeak ez betetzearen biktimak izanik, botoa emango diote dauden lege pittinak ere kentzea iragarri duen Trumpi.

Horchschilderen interpretazioan, "Paradoxa handia" den horren oinarrian dago Bill Bishopek *The Big Sort* -"Multzokatze handia"- liburuan azaldutako amerikarren polarizazioa: gaur egun herritarrak ez dira nahasten, leku batetik bestera bizi hobe baten bila mugitzean. Gero eta gehiago berdinak berdinekin elkartzen dira, bizimodu eta ideia antzekoak dituztenen artean, eta talde bakoitza berean erradikalizatuz doa. Telebista kate berdinak, blog eta eliza berdinak, eztabaidagai berdinak...

Talde bakoitzak garatzen du *sakoneko kontakizun* bat -*deep story*- jokabide eta politikoak hobeto azaltzen dituen testuinguru ekonomiko eta sozialak berak baino. Sakoneko kontakizuna sentitzen da egia balitz bezala, iritziak eta gertakizunak aldatzen ditu, azaleratzen du jendeak sentitzen duena. Hautu politiko bateko jendeari laguntzen dio beste taldearekiko bereizkuntza mantendu eta haren ikuspegia azaltzen.

Horchschildek metafora batez mami-tu du Louisianan neoliberalismoak zanpaturik Trumpi botoa emango dietenen sakoneko kontakizuna. Hona.

Jendea ilaran jarritako mendira igotzeko zain, eta zu zure txanda errespetatzen zaude pazientziaz. Orduak aurrera ahala eguzkiak berotzen du, zu ez zaude oso gustura, lerroak ez du aurrera eginen, batzuetan atzeraka zoazela diru-

di, gauzak okertu dira urteotan. Amerikar legea beti da aurrera egitea, eta orain ez dago aurrerapenik. Hala ez zara kezkatzen, amerikar arduratsua zara.

Baina... begira! Ilaran *kolatzen* hasi dira. Zein ote? Beltzak, etorkinak, musulmanak... Horientzako dira zuk aurrera egiteko urteotan behar zenituen eta ukatu dizkizuten laguntzak. Eta nor dago hau guztia baimentzen? Obama presidente beltza!

Horchschild: "Aitortu gabeko klase gerran, *american dream*-aren zain nekatu eta haserreturik, herritarrengan handitu da lerroan txanda 'lapurtzen' dutenak babesten dituen gobernu federalarekiko gorroto bizia. Gorrotatzen dituzte laguntza publikoak behar dituzten jendeak. Ez dute ikusi nahi beraiek ere laguntza publikoa behar dutela beren etxe suntsituak konpontzeko". ■



zuri begira



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com





Juan Gorriti, eskultorea

# «Nirea da Art-behar, Art-natur, Art-denbora... beharrak, naturak eta denborak sortutako zerbait delako»

Baserria eta natura dira Gorritiren inspirazio iturriak. Batean zein bestean oharkabean sortzen eta egiten den artea jaso nahi du. Zuraren maitale amorratua, altzariak, eskulturak, margolan koloretsuak eta ipuinak egiten ditu. Denetik eta dena bere modura. Irailaren amaierara arte *Aralar itsasmira* bere erakusketa ikus daiteke Donostiako Miramar jauregian, Aralarko zati bat itsasoari besarkatuta.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

## Larraunen sortu eta Araitzera berehala etorri zinen bizitzera?

Aita Uharte Arakilgoa zen. Errepideak egiten ibili zen lanean, gero lorezaina izan zen orain Chillida-leku den tokian, orduan Txurruka familiarena, eta gero mendiko guarda etorri zen Aralarrera. Ni Oderitzen jaio nintzen, baina berehala Betelura etorri ginan.

Txikitan eskolan beti gaizki. Ni beti zigortuta. Makila ikusi orduko leihotik salto egin eta mendira korrika joaten nintzen. Eskolako denbora hala pasa zen. Begira zer kantatzen genuen: *“Cálzame las alpargatas, dame la boina y dame el fusil. Voy a matar más rojos que flores tiene mayo y abril”*. Nik galdetzen nion aitari *rojo* zer zen eta aitak, beti beldurrez, isiltzeko esaten zidan. Hor hamahiru urte arte egon nintzen, gaixotu arte. Odola galtzen nuen urdailetik eta erietxera eraman ninduten ebakuntza egitera.

## Eta ondoren Iruñera ikastera?

Bai. Zuhaitzak markatzera etortzen zen Diputazioko enplegatu bati laguntza eskatu zion amak eta haren bidez Sales-tarren ikastetxean hartu ninduten. En-

txufeagatik sartu nintzen, eskolan ez nuelako ezer ikasi. Aukeratzetik ez eta azken postuan nengoenez sastre ikastea egokitu zitzaidan. Hura desastrea! Nik ezin nuen jostorrazarekin eta hala esan nion Tolosan sakramentino nuen anaia fraideari. Haren laguntzaz lortu nuen inprentara pasatzea eta hor ongi nengoen, polita zen lana, baina nik izugarrizko inbidia nien zurgintza ikasten zutenei, egurra maite nuelako. Kasualitatez plaza bat libre gelditu zen zurgin tailerlean eta hara sartu nintzen. Zeinen gustura ibiltzen nintzen hor! Jolas-orduan eta guzti aritzen nintzen gelditu gabe. Irakasle italiar bat zegoen, bikaina. Marrazketan eta praktketan oso nota onak ateratzen nituen baina matematikak, fisika eta horrelakoetan oso gaizki ibiltzen nintzen.

## Hortik lanera?

Ikasturte eta erdi han eman ondoren Arribera etorri nintzen Noguera tailerlean lan egitera. Han ikasi nuen baserriko egurrezko tresnak eta lanabesak egiten eta konpontzen. Gero Segurara joan nintzen eraikuntzan lan egitera. Baina nik beti gehiago ikasteko gogoia nuen eta muga pasa nahi nuen. Horretarako

baimena eskuratu eta zurgindegi batean hasi nintzen lanean. Hendaian, Baionan, Donibane Lohizunen... hamar urte ibili nintzen han. Baina gero ebakuntza larri bat egin zidaten. Urdailaren hiru laurden kendu zidaten eta pankrearen puska bat. Bi urte oso ahul pasa nituen eta esfortzurik ezin nuenez egin, zaharberritzaile lanetan hasi nintzen Donibane Lohizuneko tailer batean. Zeinen gustura aritu nintzen han! Zurginaren ofizioko atal guztiak ezagutzen nituen jada. Iparralde eta Betelu artean bizi nintzen, baina ezkondu eta semea jaio zenean pentsatu nuen nik ez nuela soilik oportetan etorri nahi. Nik nahi nituela betiko oportak, oportrik hartu behar ez izateko. Zuhaitzek ez dute ospitalerik behar eta niri ere txikitatik gertatu zait nire sendabiderik onena lana izan dela. Ni ezin naiz egon ezer egin gabe. Oso aspergarria litzateke niretzat. Hona etorri eta 1511ko etxe hau erosi eta berregin genuen. Bailarako batzar etxea zen hau eta erabat eroria zegoen.

Zaharberritze lanak eta altzariak egiten hasi nintzen, kristoren lana baitzegoen orduan. Eta gero artista jendea ezagutu nuen.





## Juan Gorriti Goldarazena

1942, Oderitz

Eskultore eta margolaria da, baina bere burua zurgintzat du. Arriben bizi da eta han dauzka lantegia eta arte galeria. Mikel Laboa, Remigio Mendiburu, Jose Luis Zumeta eta Jorge Oteizaren lagun mina. Egurraren laugarren dimentsioa bilatzen du: denbora. Erakusketa ugari egin du. Handienetako bat Alemanian duela bi urte. Uztailean zabaldu zuen *Aralar itsasmira* Donostian. Ondoren Bergarara eta Galesera eramango du erakusketa. Maillopean bizi da naturaren, Euskal Herriaren eta egurraren maitale amorratua eta han jarraituko du "arnastea ahaztu arte".





**Jorge Oteiza, Remigio Mendiburu, Elena Asins, Mikel Laboa, Zumetaren adiskide handia bai, baina zu ez zara artista?**

Nirea ez da artea. Artea zer den ere ez dakit. Nirea besteek egindakoaren jarraipena da. Egiten dudan guztia besteek egindakoa da.

Txikitan udaran beti Uhartera joaten nintzen, aitaren baserrira. Han bikain pasatzen nuen. Garia, garagarra bildu eta lan guztiak egiten genituen. Idiak lotu, ordu bat joateko beste bat itzultzeko eta garia jotzen genuen larrainean. Gu, mutikoak, trailuaren gainean joaten ginen erratza eta palarekin idien gorotza biltzeko. Afaldu ondoren freskora ateratzen ginen. Zer oroitzapen! Orain jende askok esaten du denborarik ez duela. Baina denbora eta haizea debalde daude.

**Orduan, zer da zuk egiten duzuna?**

Haur garaian ikusi eta ikasitakoa, sentitutako guztia. Nirea da Art-behar, beharrik sortutako zerbait delako eta Art-natur, Art-lan, Art-denbora. Horiek guztiak forma batzuk ematen dituzte, baina nik ez dut hori ikasi, sentitu baizik. Gure aitaren etxea 1650ekoa zen eta bota egin zuten. Nik memoria historiko hori sentitu egiten dut. Handik hartu eta gorde nituen egur pusketetan denborak utzitako arrasto guztiak sentitzen ditut. Sukaldeko kedarra, usaina, dena collage bat bezala gordetzen dut nik buruan. Paleolitotik internetera pasa naiz, Euskal Herria bezala. San Telmo museoan Tàpies ezagutu nuenean, Remigio Mendibururi esan nion haren obra bati buruz: "Horrek gure etxeko sukalde zaharra ematen du".

**Remigio Mendiburu eskultorea lagun mina izan zenuen. Nolakoa izan zen zuen harremana?**

Adiskidetasun handia izan genuen. Biok batera heldu ginen hona. Ni Betelura eta bera Intzara. Hura bai zela artista handia. Izugarritzko lotura zuen herriarekin.



Hona etorri nintzelarik errestaurazioan eta altzariak egiten hasi nintzen. Ene koinatu bat Intzara bizi zen eta berak eman zidan haren berri. Lagun onak izan ginen. Materialei buruz asko hitz egiten genuen. Berak pagoarekin egiten zuen lan, baina pagoa oso sentikorra da. Arbolak bizitza dauka. Neguan, hostoa joaten zaionean, lo gelditzen denean, azaroa, abendua eta urtarrileko ilberrian moztu behar da pagoa, bestela pasmatu egiten da egurra. Nik hori dena azaltzen nion eta interes handiarekin hartzen zuen berak. Ilargien kontuarekin mural eder batzuk egin zituen, adibidez. Harekin, nik ere asko ikasi nuen. Ikasi nahi izanez gero, ikusteko eta galdetzeko lotsarik ez da izan behar.

Artista handia zen, Elena Asins bezala. Zer gauzak egiten zituen! Elena hitzarekin artista ikaragarria zen.

**Zer da urdin hori, zuk horrenbeste maite duzuna?**

Nik urdinari maitasuna diot nire haur garaiko zeruko kolorea delako. Baina urdin bizi hura, jada ez dut ikusten. Lehengo usainekin, lehengo formekin, lotuta dago urdin hori. Ukuiluko, ganbarako, sukaldeko usainekin.

**Eta topaketak?**

Eraikin bat altxatzeko edo eskultura bat egiteko erabiltzen den teknika. Baserritatean topaketa da garrantzitsua: ez da ikusten baina egiturari eusteko izugarritzko indarra du eta askatzen baduzu dena desegiten da.

**Aralar itsasmira erakusketarekin hiru hilabetez izan zara Miramar jauregian. Baserrira, lanabesak, Mikel Laboaren oroitzapenak, txalaparta, gerraren aurkako lanak... Kontent?**

Oso pozik. Donostiara eraman dudana gure Aralarreko zati bat da. Aralarrek itsaso besarkatzen du erakusketa honetan. Jokin Sorozabal bertsolari handiak behin



hitx ederretan esan zuen Gorritiren lan guztien ama askatasuna eta maitasuna direla. Jabier Lekuona arkitekto beratarra izan da komisarioa eta berak askatasun erabatekoa eman dit eta izugarri eskertzen diot. Orain Bergarara eta azaroan Galesera eramango dugu erakusketa.

**Donostian behi urdinak harrera egiten dio jendeari.**

Bai. Alemaniara ere eraman nuen duela bi urte han egin genuen erakusketara. Lan handia du atzetik. Semea eta beste lagun batzuen laguntzarekin egin nuen: hiru hilabete aritu ginen lanean kofratua egiteko, soldadurak egiten, gero xafak jarri genizkion, baina erabat estali gabe, eta ondoren margotu. Horretan Irizar Autobusak lantegikoan laguntza izan nuen. Oso lagunak ditut eta haiek margotu zidaten behia izotza, beroa eta denari aurre egiteko. Haiek autobusak egiten dituzte mundu osorako eta badaukite zer margo erabili behar diren.

**Udaberrian AEKren Korrikarako zuk eginko lekukoa berriz eskutik eskura ibiliko da.**

Remigio Mendiburuk egin zuen lehen lekukoa, baina pagoarekin egin zegoenez laster izorratu zen. Beste bat enkargatu zidaten eta nik, Remirena kopiatu nuen, baina ezpelez egin eta erroskaduna, barreneko mezua bidean eror ez zedin. Honekin sentitzen dudana da herriak ematen didana nik itzuli egiten dudala, Arestik bere poemari zioen bezala.

**Eta iaz beste lekuko bat egin zenuen Nafarroa Oinezentzat, "Erronkalekukoa".**

Bai. Euskal Herriko baserririk zaharrenean du jatorria, Oñatin zegoen 1450eko baserritateko egur puskekin egin baita. Baserririk su hartu zuen eta erre ez ziren puska batzuk ekarri zitkidaten. Pentsatu nuen gure baserririk, gure zuhaitzak, gure euskara... dena lotuta dagoela eta lekuko hori prestatu nuen hurrei hau dena erakusteko.



## Herri bat

“Progresoa onartu behar da, baina ‘Izan zirelako gara eta garelako izango dira’ Joxe Migel Barandiaranek esan zuen moduan. Odol bidea da hori, gure amak esaten zuen bezala. Nire borroka sentitzen dudana egitea da, munduari erakustea herri bat garela. Besterik ez”.

## Aralar

“Euskaldunok arbolak bezalakoak gara: sustraiak ditugu baina denborarekin adarrak ateratzen zaizkigu eta haiekin mundu guztia besarkatzen dugu. Guk ez dugu mugarik. Aralar Gipuzkoa, Aralar Nafarroa... esaten dutenean ez zait gustatzen. Aralar da eta kito. Horregatik, erakusketaren irekieran esan nuen ni hemen egon bitartean, Donostia Nafarroa dela”.

## Lana

“Aberastasun handiena ikastea da. Nire mediku hoberena lana da. Hitzik gabeko liburu bat da hemen dudana guztia”.

## Sentitu, pentsatu, ekin

“Behin Pirritx eta Porrotx etorri ziren hurrez betetako hiru autobusekin. Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolako haurrak ziren. Hemen, gelditu gabe ibili ziren eta joaterakoan batek egin zidan azken galdera, eta zer galdera!: ‘Gorriti: zuk nola egiten duzu eskultura?’. Eta esan nien lehenbizi sentitu egiten dudala, ondoren pentsatu (edo gure aitona esaten zuen bezala buruarekin jan), eta gero ekin”.







## Off the record: Ametsetako paradisu

Iratxo itxurako haur urtetsu honekin zitzuan pasatzen da denbora. Honetaz eta hartaz solasean, modu desordenatuan gauzaz beteriko etxe handi, eder eta koloretsu horretako egongela-sukaldean. Dibertigarria toki guztietan dituen materialak, artelanak eta artelan izateko bidean dauden objektu guztiak ikustea. Margo tantez betetako hormak, atek eta lurra edozein haurren ametsetako paradisuak lirakeke. Arratsalde osoa joan zaigu ohartu gabe Juanito gaixoa zukutu eta ia energia guztia zurrupatu diogula, meriendatzeko ere astirik eman gabe. “Urdaila oso txikia utzi zidatenez, egunean gutxienez zortzi aldiz jan behar dut zerbait, bestela ahul gelditzen naiz”, diosku. Eskerrak ogi pixka bat eta txokolate zatia janda, berririo kargatzen zaion bateria Juanitori. “Elkarrizketa amaitutakoan suzuria bota behar genuen agian, Juanito, lan bat bukatzen duzularik zuk egin ohi duzun gisan”.

### Hamaika artelan ikusgarri egin duzu. Zer dela eta margotu zenuen Pirritx eta Porrotxen Panpoxa kamioneta?

Istorio bitxia. Asko ibili naiz errepidean eta gauza asko gertatu zait. Karretera komunikazioa da, eta tragedia, eta malakoa. Hori dena nahi nuen adierazi lan batean. Horretarako ehun metroko errepide zatia margotzea bururatu zitzaidan baina ez zidaten utzi. Edozein bizikleta

lasterketan errepideak itxi egiten dituzte eta jendeak pintatu egiten ditu eta ez da ezer gertatzen, baina niri ez zidaten baimenik eman. Egun batean, Pirritx eta Porrotx etorri zirenean haien saioetako bat grabatzera haien furgoneta handi txuriarekin, Porrotzek esan zuten: “Nola ez dizutela uzten errepidea margotzen? Kamioneta margotu behar duzu. Ehun metro ez dutela nahi? Orain ehun mila

kilometro izango dute!”. Maketa egin eta Autobuses Irizarrera eraman genuen, lagunak ditut eta oso solidarioak dira. Festa izan zen hura. Denak bat eginik.

### Agian orain saiatu beharko zenuke, gobernu berriarekin...

Ez. Hori jada pasa da. Furgoneta egin nuen eta kito. Emozioa kazetaritzan notizia bezala da: bihar berandu da. ■

Europa erakusten digutena baino askoz ere anitzagoa eta ederragoa da

**EUROPAKO HERRIEN MAPA EUSKARAZ**

**15€**

bidalketa barne  
Euskal Herrian

Mundua ulertzeko  
beste begirada bat,  
ARGIAren eskutik.

**ARGIA**

Egin ezazu eskaera:

943 371 545 | [www.argia.eus/denda](http://www.argia.eus/denda) | [denda@argia.eus](mailto:denda@argia.eus)



Neurria: 84,1 x 59,4 cm

*Etxe, eskola eta elkarteetarako opari aproposa*



50(0)  
URTEKO  
LEIALTA  
SUNA

Azteken KONTRAKO KONKISTAN,  
TXAKALTEKAK ETA TOTONEKAK  
ABANGOARDIAN EMAN ZITUZTEN  
ESPAINIARREK

ETA GARAITU

Nafarroaren aurkako inbasioan  
milaka euskaldun joaki ziren  
espainiar armadaren buru

emaitza hor dago

Nafar-arabar erreketek  
zuen euskadi irabazi  
espainiarrentzat

dotore

Boz autonomikoetan euskaldun  
hautagaiak botoa eskatzen dute  
espainiar monarkiaren onetan

ESQUERRIC VASCOS!





# TTIP edo demokraziaren heriotza

**A**tlantiko gaineko Merkataritza eta Inbertsionarako Partaidetza edo (TTIP) ezagun bilakatu zaigu azken urteetan. Ez da kontu berria, hala ere. Duela hogeita bat urte enpresa multinazional batzuk, Lankidetzaren eta Garapen Ekonomiarako Erakunderen (OCDE) babesarekin saiatu ziren AMI (Inbertsionarako Aldeanitzeko Akordioa) indarrean jartzen, baina oposizio gogorraren ostean bertan behera geratu zen multinazionalen proiektua. Saiakera ezerezean geratu zen, baina itzultzeko asmoz.

Europako Batzordeak oraindik negoziatzen jarraitzen du TTIPa, baina erakunde horretan indarra duten zenbait kidek, hala nola Frantziako Estatuko Gobernuak edo Alemaniako alderdi sozialdemokratikak, jadanik negoziazio horiek eten egin behar direla diote. Hala ere, kontuz, datoren urtean bi herrialde horietan hauteskunde nagusiak dituzte eta badakite, jakin ere, hiritar andana TTIParen aurka dagoela, eta oraingo ez zaie interesatzen negoziatzen jarraitzea. Beraz, hauteskunde horien ondoren, ziurrenik, berriro ere aurrera jotzeko asmoa izango dute.

Horrez gain, datorren urrian Kanada eta Europar Batasunaren (EB) arteko oso berdintsua den akordioa, berau ere ezkutuan, sinatzekoak dira. Hitzarmen hori sinatzen bada, AEBei atek irekiko zaizkie EBn beren ondasun eta zerbitzuak komertzializatzeko, AEBek atek irekita izango dituzte Kanadatik EBra sartzeko, jadanik bi herrialde horiek, Mexikorekin batera, NAFTAko kide direlako. Haatik, Kanada *Troiako zaldia* izango da EBn eta AEBetako ondasun eta zerbitzuen inbasioa jasango dugu lurralde hauetan, beren kalitate, langile eta ingurumenaren babesaren kaltetan. Gainera, jatorrizko izendapena ere ezabatu nahi digute.

Uda aurretik, Eusko Jaurlaritzako kontseilari bati entzun genion euskal industriak hobekuntza izango zuela TTIPa onetsi ostean eta lehenbailehen egikaritu behar dela. EAeko hauteskun-



Baleren Bakaikoa Azurmendi

EHU-KO IRAKASLEA

Gure sistema demokratikoa edo geratzen zaigun demokrazia urria jota geratuko da eta kudeaketa hori multinazionalak burutuko dute

deak direla eta, komenigarria izango litzateke TTIPi buruz eztabaidatzeko eta legebiltzar berria osatu bezain pronto bertan eztabaidatzea eta ebazpen bat onestea, jadanik Walonian egin den moduan. Sinbolikoa izango da, baina garden geratuko da alderdi bakoitzaren jarrera epe ertain eta luzean jasango ditugun ondorio larriak epaitzeko.

Ez dakit gure kontseilariak nondik atera dituen kontu horiek. Jakin badakigu, egun muga zergek apenas garrantzirik dutela. Ohiko merkantzien gainekoa ez da %2 baino gehiago. Nekazaritza ondasunek babes handiagoa daukate EBn sartzean eta muga zerga horiek deuseztatzen badira, Europako nekazari txikiaren egingo du, eta okerrago euskal nekazaritzarenak. Izan ere, Mexikok bat egin zuenean AEB eta Kanadarekin, 1995ean NAFTA sortu ostean, bi milioi eta erdi nekazari txikiak beren arto eremuak utzi behar izan zituzten eta

hirietara migratu, AEBetatik arto subentzionatua Mexikon saltzen duelako.

Bestalde, AEBetako Nekazaritza Sailak egin ditu zenbait hurbilketa jakiteko nolako eragin ekonomikoa izango duen TTIPak. Bi agertokiren arabera, EB gaitzaile ateratzen da. Lehenengo agertokian, muga zerga apalekin, AEBetako esportazioak 5.500 milioi dolarretan igoko lirateke eta EBkoak 800 milioietan. Muga zerga eta merkataritzarako oztopo oro kenduta, AEBetako esportazioak 10.000 milioitan handituko lirateke eta EBkoak 2.000 milioi dolarretan. Agerikoa da nor izango den garaile.

Multinazional iparramerikarrak kezu dira AEBetako botikek EBn saltzean osasunean eraginik ez dutela frogatu behar delako, hemengo arautegiaren arabera. Aldiz, AEBetan, kaltetutako pertsonak demostratu behar du edozein ondasun edo botika kaltegarria dela. Beraz, bigarren metodo hori ezarri nahi dute gure artean, Europako prebentzio sistema saihestuta.

Halaber, gure sistema demokratikoa edo geratzen zaigun demokrazia urria jota geratuko da eta kudeaketa hori multinazionalak burutuko dute: gobernu batek herritarrak babeseko neurriak hartzen baditu, neurri horiek sortuko duten "mozkin galdua" kalkulatu dute eta gobernu horrek bere aurrekontuen bidez ordaindu beharko die enpresa erraldoiei. Gobernu demokratiko eta enpresa erraldoien arteko gatazkak konpontzeko epaile ez-profesionalak izendatuko dituzte, epaile arruntek burutu ordez, abokatu bufete ospetsuetako juristak izango baitira epaile. Beraz, Montesquieuren botere banaketaren teoriak berea egingo du multinazionalen mesedetan.

Ziurrenik, oraingo bederen, TTIParen negoziazioak bertan behera geratuko dira eta Barack Obamarentzat izugarriko porrota izango da, baina luze baino lehen, berriro, mahaiaren gainean azalduko zaigu, etsiak ez baitu inoiz lorik hartzen. ■

# Politika innovatu behingoz!



Iñaki Antigüedad  
EHU-KO IRAKASLEA

Filosofo ospetsu batek honela esan ei zuen: “Geroa ez da gaur lehen izan zena”. Esaldi sakona, aldaketak gauzatzeko han-hemen-go ezkerak erakutsi izan duen ezgaitasuna ulertzeko, ezker subirano zalea barne. Gurean, luze, aldaketa politikoa une batean emango zela pentsatu izan da, negoziatu eta segitukoa, di-da. Bai zera, errealitatea gordina da, gauden lekuan gaudela. Hortaz, ezkerak, era askotako krisiak lagun, erronkak birpentsatu behar ditu bere ispilu aurrean, kanpora begirako erronkei berme eraldatzaileaz eutsi baino lehenago.

“Erreforma ala haustura” esaten genuen. Baina geroa ez da izan orduan uste genuena. Nahi dugun hori ez da etorriko di-da bateko hausturaz, urratsez urrats, erreformak tartean, gauzatu doan prozesu sozio-politiko eraginkorrez baizik. Aldaketek trantsizioa behar dute eta trantsizioek aldeko baldintzak. *Continuum* batean ari gara, zerotik inoiz ere abiatzen ez garela. Kostatu da hortaz jabetzea, iraganeko inertziak behingoz utzita. Baina hemen gaude, geroari pultsua hartzen. Honetan datza kultura politiko berria, buru zabaltasunean. Politikak, eraginkorra izateko, osoa behar du izan, sozio-politiko. Eta pragmatikoa, unez une lekuan dagoenetik pasatzen dena; hori bai, norabide argian.

Baina kontuz! Pragmatismo oso diferente bi dira. Batzuen mugatua eta mugatzailea, hemen-

go burujabetza hegoan gertatu daitekeenaren zain jartzen duena, kudeaketan inertziatzko kudeatzaile... mugiezin, balizko aldebikoaren espe-roan, fededun. Hego-orratzak gidatzen du horien politika, hegoko egoera kaskarra neurri hartuta hemengoaz harropuzteko. Politika 0.0, ahorik ahora darabilten *innobazio* hori politika eremuan gauzatzeko inolako bokaziorik gabe. “Esperientzia, ez esperimientua” lelopean.

Beste pragmatismoa eraldatzailea da, burujabetzan eta sozio-ekonomian aldi berean ezinbestez, eraldaketak helburu trantsizioak helbide, orain arinago orain geldiago baina beti eraginkor, akordio zabaletan aurrera, ikusmira estrategikoan, helbidea bera ikas-teko baliatuz. Behar dugun geroa bihar izan dadin. Iparrorratza eskuan, Euskal Herriak epe motzean iparreararen diren herrialdeak hartze-ko neurri, eta gerokoak geroko. Politika 4.0, kultura berri batez innovaturik. Gobernantzan ere “esperimentatuz”.

*Denon Herria* dokumentuak biltzen dituenak gaur eta hemen gauzatzen hasteko moduko neurriak dira, tartean beste lekuetan esperimientatuak hona ekarrita. Politika 4.0 bidetik, burujabetza sozialean trantsizioak eragiteko, politikaren esparruak zabalduta, kanpokoen esperoan geratu gabe. Kultura politikoa innovatuz behingoz! ■

# Badaezpada



Miren Artetxe  
BERTSOLARIA  
@mirenartetxe

Ez da Diogenes sindromea. Ez omen da hain muturreko kontua. “Pilaketa patologikoa” objektuak zentzugabe eta kantitate handitan piltzera garamatzen nahasmene omen da. Gai-xoak gauzei berezko balioa egotzen die, edo geroa erabiliko dituen ustean gordetzen ditu, edo besterik gabe, kontrol eta ziurtasun sentsazioa ematen dio objektu horiek edukitzeak berak.

Surf ikastaroa, Siziliara bidaia, Sanferminak eta Aste Nagusiak. Pirinioetara joan-etorria. Beltzarandu. Irakurri. Beltzarandu gehixeago.

Patologia da, gaixoari kosta egiten zaiolako gauza horiek denak gabe bizitzea. Eta kontua da

luzera begira objektu horiek guztiak ezin direla modu ordenatuan bildu, eta bizitzari lekua kentzen diotela. Gauzek.

Orain igo Stromboliko argazkiak Facebookera –ez ginen alferrik egon mugikorraren pantailari begira sumendia lehertzen ari zen bitartean–. Eman izena yoga ikastaroan. Edo batukadan. Erosi korrika egiteko oinetakoak eta Zinemaldiko sarrerak. Segi estropadetara eta Porrontxotara. Bota sekulakoa. Jo larrua. Bidali txorta-kide hari mezu bat gustura egon zinela esanez, bera oso gustura egon zela erantzun diezazun. Ez dakizu berriz nahi izango duzun. Baina, eduki hor. Badaezpada. ■



# Zenbait eskaera alderdi politikoei

**H**auteskunde garaian politikoeak eskaintzak egin ohi dizkigute, ordea, orain nik hartu nahi dut txanda, haiei eskaerak egiteko.

Nire eskaeren muina Julia Sallabank-ek (University of London) iradoki dit zeharka, artikulua baten bitartez (*Bat Soziolinguistika aldizkaria 98*). Hizkuntza gutxituak berreskuratzeko asmotan nazioartean dabilzanen eskarmentuan oinarrituta, horrela dio egile horrek: "Sarritan, komunitateak zatitu egiten dira desadostasunen eta hizkuntza nola 'salbatu' behar den inguruko kontrako pentsaera eta ideologiaren ondorioz". Ezaguna dugu hori gure artean.

Arazoa berez ez da iritzi zein interes ezberdin edo kontrajarriak izatea; arazoa da halakoak ongi kudeatzen ez asmatzea. Larriago oraindik, desadostasunak bideratzen ez ahalegintzea.

Adostasunik gabe, Sallabankek dioskun "komunitatea zatitzea"ren ma- muarekin egingo dugu topo. Izan ere, ezaguna (eta ulargarria) dugu alderdiek elkarrekiko duten joera erasokorra. Baita gizartearen alderdien ika-mikiek duten eragin zatitzailea eta desmobilizatzailea ere.

Sallabanken ustez, "hizkuntza biziberritzea zer den" ez ohi da modu zehatzean eta adostuan definitzen. Horrela, hizkuntza politikari eta plangintzari



Iñaki Martínez de Luna  
SOZIOLOGOA

Azken helburuaren gaineko definizio partekaturik ezean, argudioek kutsu demagogikoa hartzen dute. Zein helbururekin egiten zaizkigu proposamen horiek? Euskara biziberritzea ala boto-saldo bat bereganatzea?

dagozkien pausoak asko zailtzen dira. Diseinuak eta ekintzak katramilatu, eta horren ondorioz, indarrak alferrik xahutzen dira. Esandako egilea berriz ekarriz: "...helburuk ez dira beti agerian, eta emaitzak ez dira maiz ebalua-

tzen". Jakina, ez bada argi esaten hizkuntza biziberritzea zer den, ez dugu helburu eta epe garbirik izango. Zeren arabera ebaluatu, beraz, ahaleginen egokitasuna eta lortutako emaitzak?

Euskararen inguruko definizio adosturik gabeko horretan murgildurik, kritika batzuk entzuten dira, tarteka-marteka, egiten dena gehiegi edota gutxiegi delakoan. Era berean, neurri edo kontra-neurri batzuk luzatzen dizkigute politikariek, aukera hobere- na norberarena dela gu konbentzitu nahirik. Azken helburuaren gaineko definizio partekaturik ezean, argudioek kutsu demagogikoa hartzen dute. Zein helbururekin egiten zaizkigu proposamen horiek? Euskara biziberritzea ala boto-saldo bat bereganatzea?

Hortaz, nire eskaerak alderdi politikoei: "Esan dezaten euskara biziberritu nahi duten ala ez". Baiezkoan: "Bakoitzak esatea euskara biziberritzeaz zer ulertzen duen". Eta, atrebentzia handirik ez delakoan, beste hau ere bai: "Esan dezaten elkarbizitza bultzatzea ala, mozkin politikoen bila, euskara baliatzea lehenesten duten". Erantzuna "elkarbizitza"ren aldekoa izango den esperantzaz, hona azken eskaera: "Euskara biziberritzeko ahalegin koordinatua egin dezaten". ■

gure artean   
euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.

  
foru aldundia  
diputación foral

www.bizkaia.eus



# Harrak, heroiak eta arrakasta

**G**aia: *Feeling high on Hermannplatz*. Nor da Hermannplatzen droga baten eraginpean bezala, zeruetan sentitzen dena? Eta zer dela eta bizi du flipaldia? Mezuaren bidaltzailea identifikatu gabe, izenburua aski izan da bideoan klik egiteko. Hermannplatz, beraz; gentrifikazioak honezkeror gurutzatu duen bi auzoren mugan kokatuta, bazter batean bere marka den Karstadt-arekin, saltoki handiak dituzten zitzaien horietako baten eraikinarekin. *“What if you were celebrated just for being you?”* esaldia irakurtzen da bideoaren gainean. Zarenagatik gorai-patua izan, *just*, beste ezeren beharrik gabe. *“What if...”*. Zer iruditzen zaizu? Imajina dezakezu?

Trafikoa gelditu eta oinezkoen semaforoa berde jartzean, egunkaria irakurtzen eserita zegoen emakumea, pilota batekin jolasten ari ziren mutikoak... itxuren ezkutalekutik atera eta korrika batean doaz erreperidera. Zebrabidearen bi alboak betetzeko adina dira eta bidea zeharkatzen ari direnak txalotzeari eta bibatzeari ekiten diote. Tourreko txirrindulariak animatzen egoten direnen antzean. Esanguratsua dira sorpresaz hartzen dituen oinezkoen erreakzioak. Badira kirolari irabazleen mimika imitatuz besoak jasotzen dituztenak, momentua autentikoki gozatzea lortzen dutenak. Edo keinua egin eta gero, barre urduriarekin begirada jaisten edo zerura zuzentzen dutenak. Badago handitasun sentipena eskuarekin agur egin ez jakatzen duenik, zinema munduko jendeak edo errege-erreginek egingo luketen bezala. Lotsaz ahoa eskuarekin estaltzen duena. Bere ordura arteko ibilerari irmo eusten diona, guzti hori ez doalako berarekin. Pentsatzen jarri naiz nik nola erreakzionatuko nukeen. Nola gustatuko litzaidakeen erreakzionatzea. Zenbateraino behar ditugun



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

halako momentuak gure bizitzan; eta gehienok ez ditugun, noski. *“Everyone is a hero”* esaldiarekin bukatzen da bideoa, gutako bakoitzaren heroiatasuna seinalatuz.

Gero irakurri dut *“flahmob”* xume honi testuingurua jartzen dion zita: *“Gure helburua izan behar da”,* dio irakasle batek *Der Spiegel* astekarian, *“bizitza arrakastatsua posible egitea; eta ez bizitzak zailtzea nota txarrekin, umore txarrarekin”*. Ikasturte hasiera okasiotzat hartuz, eskolako hezkuntzaz polemizatzen duen artikuluan, umeak eskolan sarriegi txikitu egiten direla esaten du, irakasleek beren frustrazioa haiekin kanporatzen dutelako. Haurrentzako liburu bateko protagonista etorri zait burura. Ida, eskolarako bidean hamabost har salbatzeagatik berandu iritsi da lehen egunetako batean. Neskatoa harro sentitzen da, baina irakasleak egindako okerragatik errieta egin dio eta gurasoek sinatzeko oharrarekin bidali du etxera.

Badago haur literaturako klasikoaren artean, aitarekin soilik bizi den mutiko bat. Jatorrizkoan Alfons Aberg du izena, baina itzulitako hizkuntza bakoitzean izen ezberdina du, eta euskarazkorik ez. Bere lehen eskola eguna izango denaren aurreko gauean, lo egin ezinik dagoela, aitak lasaitzeko esan dio, ez duela beldur izan behar, bera bezain urduri daudela gainontzeko beste haurrak ere. Lehen egun horretan, irakasleak sekretu bat kontatu diela esanez bueltatu da etxera: bera ere lo egin ezinik egon dela. Irakasleek beren buruari baimendu ohi ez dioten zerbait egin du: Ahultasuna erakutsi. Eta, bide batez, haurrei barrea eragin die eta haien konfiantza irabazi du.

Giro bat ala bestea sortzen duenak berak ere, horixe bizi du. Zebrabidean txalo-joka ari direnak zein ondo pasatzen ari diren ikusi besterik ez dago. ■



# Legebiltzar berrituan ere, aldaketarako aukera lausoak?

Hauteskunde kanpainan bete-betean sartuta batu ditugu EHuko ikus-entzunezko komunikazio eta publizitate sailean irakasle den Estitxu Garai Artetxe (Gordexola, 1985) eta Aztiker soziologia ikerguneko kide Asier Etxenike Ugarte (Orereta, 1979). Elkarrekin Ahal Dugu indar politikoaren sarrerak Eusko Legebiltzara aldatuko du eta honenbestez, akordio berriak ikusteko aukera izango da.

**Axier Lopez eta Lander Arbelaitz**

@axierL / @larbelaitz

ARGAZKIAK: ARITZ LOIOLA

**Nola ikusi duzue kanpaina?**

**Estitxu Garai:** Kanpaina oso laburra egin zait, uda tarteko eta hauteskundeak aurreratuta, aurre-kanpainarik ia ez da egon. Oso zaila izan da Espainiako agendatik askatzea eta kanpaina abiatu denean, orduan hasi da hemengo gaiei buruz hitz egiten.

**Asier Etxenike:** Espainiako Kongresuko saltsa guztia urtebetez luzatu da, orain markoa aldatu eta inoizko epe laburrenean jendeak bere burua berriro kokatu beharko du. Hori berria da. Boto

dualaz –hauteskunde motaren arabera botoa aldatzea– hitz egiten da, Euskal Herrira iristen ari dela Katalunian ohikoa izan dena. Dualitate horretarako ere marjin txikiagoa eman digute. Eraginak ikusteko daude.

**Jendea nekatzen ari da hauteskundeekin ala galdetuak izatearekin pozten gara?**

**A. Etxenike:** Jendea nekatuta dago, bereziki Espainiako Estatuan urtebetez gauza beraz hitz egiten aritu beharraz: presidentea egongo den ala ez. Halere,



erabakiak hartu behar direnean jendeak behar demokratiko hori sentitzen du. “Ni ez banaiz joaten beste batzuk joango dira” moduko ideiek indarra hartzen dute eta azkenean aukera txar guztietatik onena bozkatzera joaten da lagun asko.

**E. Garai:** EAEn askok ez dakite hauteskundeak direnik ere, bereziki gazteen artean. Badirudi politikaz asko hitz egiten dugula, baina gero zer neurritan ez ote da oso eremu konkretuko jendea? Interesak ez ote daude beste toki





batean? Ez dakit lortu den hauteskondeak bereiztea, orain bozkatuko dena beste kontu bat dela ikusaraztea. Absentzioaren datuak oso garrantzitsuak izango dira.

**Inkestek eragin handia dute kanpainen eta arma gisa erabiltzen dira. Azken aldian zenbait inkestean oso iragarpen okerrak mesfidantza sortu dute askorengan.**

**A. Etxenike:** Gauza bat dira inkestak, beste bat estimazioak eta beste bat publikatzen dena. Estimazioak ez dira

zientifikoak. Inkesta elektoraletan jende askok berez ez dizu egia esaten edo ez dizu erantzun nahi. Zailtasun handia dauka eta bakoitzaren interpretazioak pisu handia du.

Publikatzen dena eraikuntza soziala da eta sekulako indarra dauka. Azken hauteskunde europarren ostean bi urtez izan ginen hauteskunderik gabe, tarte horretan sekulako gorakada ematen zitzaion Podemosi eta denok egiazta hartu genuen, maila batean ala bestean. Argitaratu zenetik errealitatera jauzi

handia zegoela argi geratu zen gerora. Estimazio puntual batek eduki dezakeen manipulaziotik harago, nahiz eta zintzotasun guztiarekin egin, ezin duzu inoiz ziurtatu hori benetan horrela izango denik. Nik nahiago nuke hiru hilero horrelako inkestak egin, joerak ikusteko, horiek dira eta garrantzitsuenak.

**E. Garai:** Inkestak arma politikoak dira gaur egun. Inkestei esker, besteak beste, barneratu egin da boto dual hori egon egongo dela. Orain hiru hilabete eztabaida politiko guztietan zalantzan jartzen



zena, orain jada barneratuta daukagu. Ez da kasualitatea inkestak ugaltzea. Inkestek duten sukalde lan horri buruz, soziologoek atzean egiten dutenaz ezjakintasun handia dago.

**Kanpainetako beste zutabeetako bat hedabideak dira. Nola ikusi duzue beren jarrerera, eta bereziki hedabide publikoena?**

**E. Garai:** Gauza txar guztiak hedabideei egozteak ez litzateke zuzena, baina panorama mediatikoak eragin handia dauka euskal gizartean. Espainiako hedabideek gurean dituzten audientziak ikustea besterik ez dago. Ezkerreko erreferenteak ere hortik sortu dira azken aldian. “Telebista = manipulazioa” eske ma barneratua zuten zenbait sektoretan orain mezu batzuk filtro barik barneratzen ari dira.

Hedabide publikoek aniztasuna bereziki zaindu behar lukete eztabaida politiko guztietan, gizartearen ispilu izaten saiatu, iritzi-emaileen kopuru eta izaera aldetik. Tranpak badira, noski, eta kazetarien profiletan, adibidez, desoreka handia dago.

**Emakumeen presentzia kanpainen handitu da. Itxura ala lorpena?**

**E. Garai:** Borroka feministaren ondorioa da. Egiteko asko badago ere, herri honetan zorionez gero eta zentralitate handiagoa hartzen ari da feminismoa eta horrek alderdi politikoetan ere eragiten du. Halere, alderdi politiko gehien erreferente nagusiak gizonezkoak dira. Hauteskundetako EAJren kartelak ikustea besterik ez dago horretaz jabetzeko.

**A. Etxenike:** Emakumeen bozka irabazi nahiagatik, erreferentzia berriak sortzeko gogoagatik edo feminismoan sinesten dutelako, edozelan ere, borroka feministaren lorpena da. Halere, alderdien benetako bizitza ez da karteletan ikusten dena. Ardura politikoak, aholkulariak eta beste aztertutako gero, gizarteko beste egituretan baino desoreka handiagoak daude alderdietan.

**Gatazkaren ondorioek eta identitatearekin lotutako gaiek kanpainen presentzia galdu dutela dirudi lana edo justizia sozialaren mesedetan.**

**A. Etxenike:** Etiketak jartzea eta sailkatzea korapilatsua da. Horren arabera badirudi talka dagoela kontu identitarioen eta sozialen artean. Nire ustez,



» **ASIER ETXENIKE:**  
“Inkestei buruz publikatzen dena eraikuntza soziala da eta sekulako indarra dauka”

» **ESTITXU GARAI:**  
“Emakumeen presentzia kanpaina honetan borroka feministaren ondorioa da”

dikotomia hori faltsua da neurri handi batean. Beste arrazoi batzuen artean, Euskal Herrian ezkerreko mugimendurik handiena identitarioa delako eta hauteskunde hauetan ere indarra izango duelako.

Krisiak eta neoliberalismoak ziklo politiko berri bat ekarri dute, eta burujabetzarekin lotutako gaiek pisua irabazi dute. Termino demokratikoetan dago kokatuta eztabaida, baina horren azpian elementu identitarioak, kulturalak, linguistikoak, nazionalak eta bestelakoak daude. Nolabaiteko konfiantza dago horiek berez bide onetik doazela, ezer egin gabe gauzak hobetuko direlakoan. Hizkuntzaren berreskurapena da adibiderik esanguratsuena, eta beraz, gai horietan gatazka gutxiago ikusarazten

da. Hor nahasmendua eta noraeza dago, baina ez da gai horiek pisu txikiagoa dutelako.

**E. Garai:** Ados Asierrekin. Akats handia litzateke alderdi abertzaleen partetik, ardatz identitarioa galtzea. Diskurtsoa termino demokratikoetan planteatzea zentzuzkoa da eta jendeak ikustea erabakitzeke eskubideak euskaldunei hobeto bizitzea ekar diezaikeela, baina horrek ez du esan nahi izaera, hizkuntza, edo bertako kulturarekin lotutako funtsezko aldarrikapenak alboratu behar direnik. Ikusten dut badagoela tentazioa diskurtsoa handik urruntzeko. Euskal Herrian ezkerrekoa edo iraultzailea eta euskaltzalea izateak, adibidez, guztiz egiten du bat.

**“EAEn Espainian baino hobeto gaude” ikusmoldeak zenbateko pisua du?**

**A. Etxenike:** Alderaketa hori da estatu egiturarik ez edukitzearen adierazlea. Datu ekonomikoek etengabe marko horretan kokatzen gaituzte, Espainiaren barruan erkidegoka banatuta. Nahiz eta kudeaketan daudenek hori azpimarratu nahi ez izan, berez etortzen zaizkigu. Etengabe marko horretan mugitzen gara. Horrek badu guretzat autokonplazientzia puntu bat. Besteak baino hobeto ei gaudenez, lasaitasuna ematen du eta borrokatzeko grina apaldu. Hemen boterea dutenek oso ondo kudeatzen dute hori. Podemos eta EH Bildu ideia horri eraso egiten saiatu dira eta EAJ orduan hasi da Europako batz beste-koarekin alderatzen. Horrek ere ez du

zentzu handirik, estatu zehatzekin alderatu beharko bailitzateke. Datuak komunikatiboki kriston pisua daukate eta politikariek ere gustuko datuak baino ez dituzte erabiltzen.

**E. Garai:** Espainiarekin konparatzean datuak positiboak izan ohi dira. Europako beste herrialde batzuekin erkatuta, ordea, azpitik gaude. Hor tranpa dago. Ikuspuntu independentista batek badu potentziala, arlo sozialari dagokionez. Hau da, hemen gauzak beste modu batean egin daitezke eta egun ez dira egiten estatu egitura batek galarazten duelako. Alderaketa horiek badute indar diskurtsiboa. Beste kontu bat da gure erreferente bakarra Espainia izatea. Hori kaltegarria iruditzen zait.

**Araban eta Gipuzkoan alderdien arteko leiha biziagoa da, baina Bizkaian, aurreko hauteskundeetan Podemos garaile izan bazen ere, EAJk berriz aise irabaziko duela dirudi.**

**A. Etxenike:** EAJko buru batek behin esan zidanarekin erantzungo dizut: EAJ oso kudeatzaile ona da, zerbitzuen ikuspegi batetik. Eta herritarra ohitu da administrazioari hori eskatzen. Hori ongi egiten duzun bitartean, hor egongo zara. EAJk gaitasuna du fokua baretzen komunikatiboki min handia egin gabe, eta horri erantzuten diote Bizkaiko emaitza onek. Gatazkarik ez da sortzen, gehien-goak status quo-aren, egonkortasunaren eta lasaitasunaren alde egiten du. Beste herrialdeetan alternantziak egon direnez, balizko aldaketek ez dute beldur hori sortzen, eta gainera, gatazkak eta higadura sortzeko aukera gehiago dago. Bizkaian Espainiako hauteskundeetan ez dago arazorik Podemos bozkatzeko, beste zerbait erabakitzen zelako, baina hemengo hauteskundeetan EAJ bozkatuko du askok.

**E. Garai:** EAJk oso ongi daki hitz egiten bere boto-emaile potentzialei. Kudeaketa eta egonkortasunaren ideiak oso hedatuta daude. Egonkortasuna erakundeetan zerbait positibo gisa proiektatzen da. EAJk ongi kudeatzen duela dio, Espainiaren antitesiarekin gisara. Alternatiba proposatu nahi duten gutzientzat erronka da hemen ere injustizia handiak daudela erakustea eta horien ordezkaria instituzioetan EAJ dela, bere kudeaketa modua. Hor egon liteke gakoa Bizkaian eta hirigune handietan jendearekin konektatzeko.

## ALDERDIEN INDARGUNE ETA AHULGUNEAK

Modu labur batean, alderdi bakoitzean zein indargune eta ahulgune ikusten dituzten galdetu diegu Garai eta Etxenikeri. Hemen emaitza.

### EAJ

Jarrakortasuna, kudeaketa eta egonkortasunaren kontzeptuetan ikusten du Estitxu Garaik jeltzaleen indargunea. Etxenikek "neurri handi batean berez etorri zaizkien" adierazle ekonomikoen kudeaketa aipatu du. Biak bat etorri dira jeltzaleen ahulguneak galdetzean: hauteskunde programa ez bete izana. "Erreferenduma agindu zuten 2015erako, ez dute bete eta ez dute azalpenik eman", dio Garaik. Kontu hau gainerako alderdiek aurpegiratu ez izana ulergaitza egin zaie bie. Etxenikereren ustez, inoiz baino lege gutxiago onartu dira eta ezberdinekin adostasunetara heltzearen leloak funtzionatzen badie ere, neurri batean ez dela bete dio.

### Elkarrekin Ahal Dugu

Espainiako marka eta hango erreferentziak dira bere indargunea Garairen ustez. Alderdiaren sorreran hedatu zen olatu horretatik zerbait geratzen zaiela uste du Etxenikek, "horri eusten ahaleginduko dira". Ahulgunetan hautagai indartsu baten gabezia aipatu dute bie. Bertako egiturak, mezu eta proposamen propioen falta ikusten du Garaik.

### EH Bildu

"Mezu politikoa argitzen ari dira eta hautesleriarekin berriz konektatzeko aukera" ikusten dio Etxenikek EH Bilduri. Aurreko hauteskundeetako emaitza txarrak eta hauek utzitako egoera animikoa dira koa-

lizioaren ahulgunea soziologoaren ustez. Garairen ustez indargune da "aurpegi berrien freskotasuna, Otegi kartzelatik atera izana eta zentralitatea irabazi izana". Halere, ahulgune gisa ikusten du ezker abertzalearen zailtasuna panorama politiko berriaren alternatiba Euskal Herrian eta ez Madrilen sor daitekeela ikusarazteko.

### PSE-EE

Kanpainaren ardatza Espainian kokatu eta han gerta litekeenean arreta jartzea da sozialisten indargunea Garairen ustez. Halere, gaineratu du hautesleriak ez duela alderdi sozialista ikusten EAJren makulua ez den beste eginkizun batean. Podemosen jaitzieratik agian zerbait arrantzatu dezaketela uste du Etxenikek, baina azken urteetako gainbeherari buelta nekez emango diotela. "Bada azpiko joera bat, soziologikoa, eta ez dute sektore berririk lotzen beren proiektura".

### PP

Inkesta guztiek popularren emaitza txarrak aurreikusten dituzte eta zaila egin zaie bie PPri indarguneraren bat bilatzea "Espainiako identitatea eta bandera espainiarra gorapatzetik harago". Ahulgunetan, Madrildik datorren Alfonso Alonso hautagai zigortua aipatu du Etxenikek. "San Antoneko kasua dela-eta Araban asko mugitu dira gauzak, eta hori gilda baten truke estali nahi izatea, zaila da". Garaik uste du PPren mezuak Espainiako gizartearekin konekta dezakeela, baina Euskal Herriko errealitatetik oso urrun dagoela. "Inposizioaren eskematik kanpo ezer gutxi dute eskaintzeko eta horrek hemengo joerekin ez du konektatzen".

**Espainiako estatuan Podemosek sortu zuen aldaketaren ilusioa gainbehera datorrela dirudi. Nola eragingo du hemen?**

**E. Garai:** EH Bilduren "hemen bai" leloak hori ordezkatzeko, Espainian ezin dela aldaketarik eman, eta hemen bai. Desilusio horrek eragina izango du hauteskunde hauetan. Podemosen fenomeno marka parametroetan aztertu behar da. Politikan dagoen joera orokorra da: erabakiak ez dira hartzen hainbeste mezuak aztertuta, baizik eta

sentsazio orokorren bidez. Podemosen horrek eragin handia izan du. Nik uste higatuta heldu direla. Pablo Iglesias etorri zen eguna kenduta, oso jende gutxi hartu du parte Ahal Duguren kanpainako ekitaldietan.

**A. Etxenike:** Podemosen bat egin dute gauza askok. Oso bozka emozionala izan da. Egun osoa pasatzen dugu haserre, lanean nekatur... horregatik futbolak du arrakasta, noizean behin irabazle sentiarazten zaituelako. Politikan ere horrek



asko funtzionatzen du eta Podemosekin lerrokatzea erraza zen. Espainiako hauteskundeetan PP kentzeko aukera zela zabaldu zen gainera. EAeko hauteskundeetan, ordea, beste gako batzuk sartzen dira: ez da PP kendu behar eta emozionalki ere behera etorri da Podemosek beste herrialdeetan izan dituen emaitzengatik. Gainera, hautagaiarekin ez dute asmatu. Helburu zuten ezker abertzalearen bozka kopuru handi bat bereganatzea, eta horregatik hautatu dute Pili Zabala, baina nire ustez, ez du funtzionatu. Ikusteko dago ea mobilizatzeko gai diren beste boto mota bat, ez hain politizatua edo humanistagoa dena. Orain erakutsiko da neurri handi batean Podemosen oinarria zein den. Nire ustez, sabaia jo dute, gehien bat EAEn.

#### **EH Bildu eta Podemosen arteko ituna posible al da? EAJ eta PSE-EE baino gehiago izatea lortuko dute?**

**E. Garai:** Nire ustez aukera bat galdu da. EH Bildu eta Podemos, EAJ eta PSE-EE baino gehiago izan ahal izatea diskurtsiboki lantzeko aukera ere galdu dute. Posibilitate hori bazterrerera eramatea EAJren abilezia iruditzen zait. Podemos eta EH Bildu elkarren lehian sartzea, eta beste eremuak umezurtz uztea akatsa da. Pena da kanpainen ez egotea presentego gobernu aldaketa eman daitekeela. Ilusioa sor zezakeen. Askotan Podemos Estatuaren tresna gisa ikusten dut, Katalunia eta Euskal Herriari begirako tresna, gose soberanista eta independentistari alternatiba atsegin bat.

**A. Etxenike:** Nafarroan ozta-ozta gertatu zen aldaketa eta neurri handi batean nafarrek aldaketa mahai gainean jarri zutelako, baina hemen ezinezko ikusten dut. Ez da EH Bilduk nahi ez duelako, baizik eta Madrildik hemengoa kudeatzen ari direnez, oso zaila delako. Nola irudikatu duzu EAJ erditik kentzea, EH Bildurekin ezer egin gabe? Hemengo Podemosen zat aukera galdua izan dela uste dut.

**E. Garai:** Iker Casanovak telebistan aipatu zuen EH Bilduk zentralitatea hartuko duela. Batetik, herri proiektua partekatzen du EAJrekin, eta bestetik, ezkerreko ardatz soziala Podemosekin eta zenbait gaitan PSE-EErekin. Legegintzaldi honetan ere akordio batzuetara heldu dira. Interesgarria litzateke emaitzak estuagoak balira EAJren jarra nola aldatuko den ikustea. Gaur da goen egonkortasuna ona da EAJrentzat.



» **ESTITXU GARAI:**  
“Pena da kanpainen ez egotea presentego gobernu aldaketa eman daitekeela, ilusioa sor zezakeen”

» **ASIER ETXENIKE:**  
“Espainiarekin erkatuz, besteak baino hobeto ei gaudenez, lasaitasuna ematen du eta borrokatzeko grina apaldu. Hemen boterea dutenek oso ondo kudeatzen dute hori”

**Duela bi legegintzaldi EAJri Gasteizko Gobernuak “kendu” zioten PSE-EEk eta PPK. Orain EAJren makulu nagusiak izango direla dirudi.**

**A. Etxenike:** EAJk eta PSE-EEk ez dute gehiago absolutua lortuko, orain arte inoiz ezagutu gabeko egoera da. Gutxiengoan gobernatuko dute eta parean legebiltzarkide mordoa izango dute kontrako posizioan. Ez alderdi bakarra, bigarren eta hirugarren indarrak baizik.

EAJ ona da egoera berrietara moldatzen eta Podemosek zer jarrera hartuko duen ezezaguna da. Ez dakigu ea PSE-EEren ordezkoa izango den ala bestelako politika batzuei lehentasuna emango dieten.

Panorama asko aldatuko da. Aukera berriak sortuko dira. EAJk egonkortasun itun bat egitea PSE-EE eta PPrekin, aurrean EH Bildu eta Podemos izanda, oso ezberdina da.

#### **EAJ eta PPren arteko elkarlana posible al da?**

**A. Etxenike:** Egun nik ez dut ikusten PP EAJ babesten, zentralizazio politiketan murgilduta daudelako. Rajoy gobernuburu jartzeko saioan ez dute EAJren babesa bilatu, Senatuko mahaiaren harira gertatu zena gertatu zela. PP Estatua zentralizatzerako doa, berrantolaketa berri batera, eskumen gutxien aitortzera, eta beraz, zail ikusten dut EAJ babestea. Ez dut ikusten harreman horretan egonkortasunik.

**E. Garai:** Ezinezkoa ematen zuen egoeretan ere ikusi izan ditugu elkarren artean konpontzen. EAJk eta PPK aurkitu izan dute modua akordioak bien gustura irudikatzen. Ezin dugu pentsatu azken hamarkadetan ezer gertatu ez balitz bezala.

**A. Etxenike:** Nik ez diot EAJk ez duela gaitasunik edo gogorik, baizik eta PPK ez diela aukerarik emango horretarako. PPrri ongi doakio, bipartidismoak alternatibak erditik kendu ditu eta koroarekin egin bezala, aldatu eta aurrera egin dute. ■



## Yayo Herrero, antropologoa

# “JENDEAK JAKIN BEHAR DU BIZITZA DUINA ZER DEN, ZER BEHAR DEN ETA ZER EZ”



Sara Arruabarrena Azkarate  
@s8ara

Yayo Herrero (@yayo\_herrero), ikerketa ekosozialez aritzen den FUHEM fundazioko zuzendaria da eta Ekologistak Martxaneko kidea. Madrilen egin digu harrera, bizitzaren iraunkortasunaz jarduteko. Haren esanetan, ekologismoa eta feminismoa jarri behar dira paradigmen erdigunean, bizitza duinaren alde egin nahi badugu. Irailaren 24an *Lanak eta eredu produktiboa krisi sistemikoan* tailerra emango du Nazioarteko III. Topaketa Ekosozialistetan, Bilbon.



### Zer da ekofeminismoa?

Mugimendu ekologista eta feministaren arteko elkarrizketa da. Gure iritziz nahitaezko elkarrizketa da, bizi dugun zibilizazio-krisiaren jatorria aztertzen badugu, patriarkatua eta krisi ekologikoa mantentzen dituen hori gauza bera dela konturatuko garelako. Horregatik, gizarte patriarkala alde batera uzteko proposamenek zerikusi handia dute krisi ekologikoa gainditzeko beharrezkoak diren neurriekin. Oso garrantzitsua da ondorengo azpimarratzea: ekofeminismoa ez da pentsaera joera bat bakarrik, mugimendu soziala ere bada. Sarritan, adi-tuen jakituria munduan esku-hartzetik banatzen da, eta hori arazo bat da. Ekofeminismoak munduan esku hartu nahi du, modu erradikalean hura aldatzeko.

### Kontzeptua 1970eko hamarkadan erabili zen lehenengoz.

Françoise d'Eaubonne frantziarrak bereganatu zuen terminoa, baina garai hartan hainbat mugimendu ekofeminismo hitza erabiltzen hasia zen. Gerra Hotzaren testuinguruan sortu zen: garai hartako kulturak gizonen pribilegioak erdigunean jartzen zituen eta bizitza arriskuan jartzen zuten politika, ekonomia eta teknologia (armak) sortzen zituen. Orduan aldarrikatu zen ezin dela bidezkoa den mundu baterantz aurrerapausorik egin ez bada feminismoa erdigunean jartzen. Ekologismoak eta feminismoak bat egiten dute ekoizpenari egindako kritikan, hazkunde ekonomikoari egindakoan eta garapenari egindakoan, eta bat egiten dute eguneroko bizitza erdigunean jarriko duen gizarte eta ekonomiaren aldeko apustuan. Bizitza erdigunean jartzeak esan nahi du naturaren mende gaudela eta finitua den planetan bizi garela onartzea. Baita mugak dituen eta ahulak diren gorputzak ditugula onartzea ere. Alegia, onartu behar da ezinezkoa dela besteek eskainitako zaintza lanik gabe aurrera egitea. Historian eta ia lurralde guztietan horrela izan den arren, zaintza emakumeek soilik ez dutela egin behar azpimarratzen du ekofeminismoak.

**Naturaren mende gaudela eta elkarren mendekoak garen izakiak garela azpimarratu duzu. "Bi mendekotasun saihestezin eta ohiko ekonomiaren eskema teorikoe-tan ikusezinak diren mendekotasunak" direla diozu Bizitzaren iraunkortasuna (REAS Euskadi) liburuan.**

» "Migratzaileak ez sartzeko hesia erabiliko bagenu energia ez sartzeko, materialak ez sartzeko edo hondakinak ez ateratzeko, ez genuke bi hilabete ere iraungo"

» "Zenbat balio du polinizazioak? Zenbat balio du erditzeak? Bizitzaren iraunkortasunerako guztiz beharrezko prozesuak dira eta ezin dira diruz neurtu, prezioa jarrita ere, prozesu horiek kaltetzen badira ez dagoelako atzera bueltarik"

Ikusezinak direla azaltzeko mendebaldeko gizartean eta kapitalismoan elementu batzuk nola eraiki diren aztertu behar da: ekoizpena, esaterako. XVII. eta XVIII. mendeetan ekonomia, zientzia gisa, ekoizpena definitzen hasi zen. Naturak, gizakiaren laguntzarekin, bere onera ekarri zezakeen oro zen ekoizpena: nekazaritza, arrantza... Gizakiaren beharrak asetzen zituen ekoizpenak. Denborak aurrera egin ahala ekoizpenaren definizioa aldatu da: diruz neurtu daitekeen eta ekonomia hazten duen oro da ekoizpena. Arazo bat dago hemen. Zein da, esaterako, galdera hauen erantzuna: Zenbat balio du polinizazioak? Zenbat balio du ozono geruzak? Zenbat balio du erditzeak? Bizitzaren iraunkortasunerako guztiz beharrezkoak diren prozesuak dira eta ezin dira diruz neurtu, prezioa jarrita ere, prozesu horiek kaltetzen badira ez dagoelako atzera bueltarik. Esaterako, ozono geruza mehetu eta eguzkiaren izpi kaltegarriak iristen bazaizkigu, ezin da atzera egin. Arazo bat dugu, diruz neurtu ezin

dena existituko ez balitz bezala jokatzen duelako sistemak. Etxean lana egiten duten emakumeen adibidea jarriko dugu. Lan hori ez da lantzat jotzen inon eta ez du eskubide sozialik sortzen. Lurra ustiatzen da eta emakumeak lanean esplotatu, ekonomia kapitalista beraren iraunkortasunerako beharrezkoak direla antzeman gabe. Sistema kapitalistaren ekoizpena ez da posible sinesgaitza den abiaduran natura kaltetu gabe eta etxeko emakumeen lanordurik gabe, hau baita guztiz beharrezkoa duen merkaturako eskulana.

**Kontraesankorra litzateke sistema kapitalistak lan horiek ordaintzea, funtsean bi mendekotasun horiek baliatuz bada iraunkorra.**

Absolutuki. Sistema kapitalistak nahitaez natura suntsitzen du eta patriarkala da. Esparru ekologikoan iraunkorra izango den eta patriarkala ez den sistema baterantz egiten badugu aurrera, sistema hori ezin da kapitalista izan.

**Naturarekiko mendekotasunari helduz, Bizitzaren iraunkortasuna liburuan diozu "gizateriak, nahitaez, gutxiagorekin bizitzera ohitu beharko" duela.**

Egoera premiazkoa da plano ekologikoan. Azken hamarkadetan ekonomiak baliabide berriztagarrien eta ez berriztagarrien zati handi bat kontsumitu du eta haren zikloak aldatu ditu. Gizakiak nahitaez gutxiagorekin bizi beharko du, ez baitago lehen zegoen energia eta mineral kopuru bera. Gutxiagotze material hori zein bidetik egingo den da galdera: ea faszismoaren bidetik egingo den, esaterako. Hau da, botere ekonomiko, politiko eta militarra duten horiek euren bizitza eredu xahutzailearekin jarraituko duten ala ez, sistematik geroz eta jende gehiago kanporatzearen kontura. Egoera horren adierazlea da gaizki izendaturiko "errefuxiatuen krisia". Migrazio ereduak errepikatuz egiten dira: landa eremutik hirira doazen pertsonen klima aldaketak eragindako lehorteengatik ihes egiten dute askotan, eta hirira ailegatutakoan gerrarekin egiten dute topo. Baliabideen kontrola helburu duten gerrak dira: energiaren eta mineralen norgehiagoka dago Siriako, Ekialde Hurbileko eta Afganistango gerretan. Euren herrialdetik kanporatutako pertsonak dira errefuxiatuok eta hainbeste gizabanakoren bizitzarekin amaitzen

duen bidaia penagarriak gainditzen dituztenek hesia aurkitzen dute Europara iristen direnean. Bi motako diskurtsoa dago migrazioaren inguruan.

### Azaldu iezazkiguzu bi diskurtsoak.

Lehena, esplizituki faszista da: "Hemen ez gara denok sartzen". Bigarrena solidarioa da, migratzaileak sartzeko beharraz dihardu, baina aldi berean ez du zalantzan jartzen herrialde horietan arpilatutako baliabideei esker mantentzen den sistema ekonomikoa. Hau da, badaude gizartean pertsona errefuxiatuen egoera konpondu nahi duten pertsonak, baina aldi berean mendebaldeko herrialdeetan dugun eredu ekonomiko eta ekoizpen eredu mantendu nahi dute. Migratzaileak ez sartzeko hesia erabiliko bagenu energia ez sartzeko, materialak ez sartzeko edo hondakinak ez ateratzeko, ez genuke bi hilabete ere iraungo. Zaintzari erreparatuta, Espainiako Estatuan eta Europan, konturatu gara kasu gehienetan arpilatutako herrialdeetatik datozen emakumeek egiten dutela lan adindunak, umeak eta elbarrituak zaintzen. Baina ez da Espainiako eta Europako kontua soilik, mundu osoko naturarekiko mendekotasunaz eta elkarren arteko mendekotasunaz ari gara, eta sostengaezina da.

Gutxiagorekin bizitzea nahitaezkoa izango dela esaten dudanean kontuan izan behar da hasierako egoera ez dela berdina guztiontzat. Herri pobreenek seguruenik gehiagorekin bizi beharko dute, eta mendebaldeko herrialdeetan egoera prekarioan bizi direnek ere euren kontsumoa handitu beharko dute zenbait arlotan. Baina herrialde aberastetako gehiengo materia gutxiagorekin eta energia gutxiagorekin bizi ahal da. Gehiago behar duen jendea badago, asko dutenek gutxiagorekin bizitzearen kontura izan beharko du.

**Herritar askok uste du egoera horretan luze jarrai dezakegula. Alderdi politiko eta instituzioek ere ekonomia "berpizteko" kontsumoa eta gastua bultzatu behar dela errepikatzen dute.**

Badaude teoria oso interesgarriak krisi orokor batetik gizartearen krisian murgilduta gaudela esaten dutenak. Nahiz eta egoera larria izan eta klima aldaketa, energiaren krisia edo uraren pozoitzearen inguruko etengabeko informazioa jaso, ez da inongo erantzun politiko-so-



JOSÉ LUIS GARCÍA CANO / EKOLOGISTAK MARTXAN

*"Bi motako diskurtsoa dago migrazioaren inguruan. Lehena, esplizituki faszista da: 'Hemen ez gara denok sartzen'. Bigarrena solidarioa da, migratzaileak sartzeko beharraz dihardu, baina aldi berean ez du zalantzan jartzen herrialde horietan arpilatutako baliabideei esker mantentzen den sistema ekonomikoa."*

zialik sortzen. Bi alderdi azpimarratuko nituzke hori azaltzeko: alde batetik, esparru kulturala. Teknologian sinesten dugu, "hori konponduko duen zerbait sortuko dute" esaten dugu, eta ondorengo esaldian laburbiltzen da: "Joango gara beste planeta batera". Errealitateari so egiteak ezinezkoa eta beldurra sortzen du. Beldurrak geldiarazi ahal gaitu arazoa nondik datorren ez dakigunean. Beldurra dugunean eta geldirik geratzen garenean gizakiok beste alde batera begiratzen dugu. Panorama mediatiko bat ere badago, adituen jakituria uneoro azaleratzen duena: "Ez larritu, adituen esku dago arazoa". Horrek auzian lan egiteko beharra alde batera uzten du. Esparru politiko-instituzionalean lau urteko hauteskunde kanpainak ditugu. Aldaketa kultural garrantzitsuak beharrezkoak dira: jendeak jakin behar du ongizatea zer den, bizitza duina zer den, kontsumoa zer den, zer behar den eta zer ez, zer diren eskubideak eta zer

pribilegioak... eta aldaketa hori gaurko kulturaren aurka doa. Hauteskunde kanpainan hautagaiek ez dute imaginario kolektiboaren aurka egiten. Nik uste dut modu sinesgarrian esan ahalko lirakeela gauza horiek guztiak; nola egin daitekeen aztertu eta alternatibak mahaigaineratu behar dira. Hala ere, gizartea aldatu nahi duenak ezintasuna aurkituko du aurrez aurre, ia ezinezkoa baita hastapeneko ekoizpenak zituen irizpideak berrezartzea.

### Zein dira ekofeminismoaren proposamenak eredu jasagarria lortzeko?

Hiru hegemoniaren aurka borrokatu behar da: hegemonia ekonomikoa, politikoa eta kulturala. Zailena hegemonia ekonomikoa dela iruditu arren, nire iritziz ez da horrela. Aspalditik dago ekoizpen eredu aldatzeko proposamena eginda, hainbat esparrutan: nekazaritza, industria, hirigintza, garraioa... Sektore suntsitzaileak eta beharrezkoak ez direnak itxi behar dira eta garatu daitezkeen eta lanpostuak sortzen dituztenen aldeko apustua egin: eraikinen energia-birgaitzea, tokian tokiko elikagaien ekoizpena, taldean eta gertutasunean oinarritutako garraioa... Gizartean zaintza lanaren beharra sekulakoa da, esaterako. Hiru galdera erantzun behar dira: zein dira ditugun baliabideekin (eta ez ez ditugunekin) ase behar diren beharrak; zer ekoitzi behar dugu horiek asetzeko; eta azkenik, zein dira sozialki beharrezkoak diren lanak. Aberastasunaren birbanatze ikaragarria da hori, baina baita denborarena ere: antolatu egin behar da bizitzarako beharrezkoa den denbora eta banatu egin behar da, baita zaintzarena ere, emakume eta gizonen artean. ■

SOINUEDER

Kooperatiba



© 944 558 347

soinueder@euskalnet.net

www.soinueder.com



# Urrea Ondarroako txalupetan EDO NOLA EROSI ZITUZTEN JELTZALEEK ARMAK GUDARIANTZAT

1936ko irailean Bilbon zegoen Banco de Españatik bost urre kutxa atera eta Ondarroako txalupatan Baionara eraman zituzten gauetz. Operazio arriskutsu horri esker gudariantzako milaka fusil erosi ahal izan zituen Agirrerren gobernu eratu berriak Txekoslovakian.



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

Felix Otxoantesana *Mariñelaren* etxeko atea gauerdian jo zuten, Baionara gasolio bila joan behar zela-eta Ondarroako batzokian azaltzeko; han esan zioten espedizioaren egiazko

misioa zein zen: “Euskadiko diruak” mugaz bestaldera pasa behar zituzten gau horretan bertan, banketxe seguru batean sartu eta armak finantzatzeko. 1936ko irailaren 4a zen, hurrengo egunean hartu zuten Irun faxistek.

Militarrek uztailean kolpea eman orduko jabetu ziren errepublikarrak arazoak izango zituztela armak lortzeko. Frantziako Gobernu ezkertiarrek laguntza ukatu zion Espainiakoari, Europako estatuek adostutako armak saltzeko debekuaren baitan. Hala, EAJko buruzagiak irtenbide bila hasi ziren, eta Eliodoro de la Torre, Anton Irala eta Telesforo Monzonen sukalde lanari esker Banco de Españaren Bilboko egoitzan zeuden urre lingote, akzio



## ARGIA EGUNA

### OROIMENAREN TXANGOA SATURRARANERA

Urriaren 1ean Ondarroan ospatuko dugun Argia Egunean aukera izango dugu bertatik bertara ezagutzeko txalupetan garraiatutako urriaren historiaren eta 1936ko gerrako beste pasarte batzuen eszenatokiak.

Ondarroako Historia Zaleak elkar-terean partaidetzarekin Saturraranera joan-etorria egingo dugu eta bidean hainbat geldialdi izango ditugu. Besteak beste, frankistek kartzela bihurtutako leku berean arnastu eta ezagutuko dugu emakume presoek bizi izandakoa. Gurutzatuko dugu Molaren tropak sartu zirenean zutik geratutako zubi bakarretakoa, eta ikusiko dugu zer ibilbide egin zuten senideak "etsaiaren zelaigunean" zituztelako 1937ko otsailean Ondarroatik eta beste hainbat herritatik egotzitako emakume eta haur errepublikarrek.



OHZ / PATXI ETXABURUK UTZIA

1937ko otsailean zenbait herritatik frankistek kanporatutako emakume eta haurren karabaneak Ondarroa eta Lekeitio arteko bidean frontearen gurutzatu zuten; tartean 148 ondarroar zeuden.

eta bestelako balioen bidez atzerrian armak erosteko operazioa jarri zuten martxan.

Irungo porrotak azkartu zuen dena, Gipuzkoa osoa faxisten esku geratu baitzen egun gutxiren buruan. Bilbo-ko espioitza sareaz mesfidati, urrea Ondarroatik eramatea erabaki zuten. Horretarako isilpean eta azken orduan ibili ziren, konfiantzako tripulazioa izateko. Halaxe jo zuten *Mariñelaren*-gana, baita Abraham Bedialaunetaren-gana ere, besteak beste. Ondarroako Historia Zaleen elkarteak haien testigantzen berri emana du bere urtekarrian: "Gobierno de Euskadiko diruak eroan genituen: bost kaxa urre", kontatu zuen Bedialaunetak.

Bost kaxa urre –beste zenbaiten araberako sei– txalupa motordun banatan (*Itxaropena*, *Lauanaia*, *Bedialauneta anaiak*, *San Jose*, eta *Sagrada*), harrapatuak izanez gero "denak batera eraman barik". Karabineroen moilan kargatu zuten urrea, baina txalupetako batek hondoa jo eta lau irten ziren azkenean Baionarantz, haietako batean bi kutxa eramanda. Han ziren Monzon eta De la Torre, batzokia operazio base hartuta.

Joanekoan arazo larririk ez zuten izan –Getariako *guardakosta* faxistak jarraitu zituen alferrik–, baina dirudienez, Monzon zorabiatu egin zen: "Gonbitoka hasi eta salto Pasaiara". Lehorretik pasa ei zuen muga buruzagi bergararrak, Bidasoako zubiak ixtear zirela. Nolanahi ere, altxorra Credit Lyonnais bankuan sartzea lortu zuten azkenean, kostata, "lapurtutako dirua" zela baitzioten iparraldean jadanik ugari ziren agente frankistek. Egiaz, euskal estatutua oraindik onartu gabe zegoen, EAJk hartutako erabakia izan zen hura.

#### Elgetan faxisten erasoaldia gelditzeko giltzarri

Anton Iralak 80ko hamarkadan gutun batean idatzita utzi zuenez, diru horrekin 5.000 *mauser* fusil eta sei milioi kartutxo erosi ahal izan zituen Monzonek Txekoslovakian, Hanburgoko portutik Euskal Herrira ekarriak Lezo Urreiztieta itsasgizon abertzalearen gidaritzapean, Euskadiko Gobernua osatu eta gutxira: "Garaiz iritsi ziren eta frankistek Elgetan egindako erasoaldia gelditzeko erabakigarriak izan ziren".

Ez ordea Ondarroa Molaren tropen hankapetil libratzeko. Itzuli al ziren

garaiz euren herrira urrea garraiatu zuten ondarroar txalupa eta marinela haiek? Baiona inguruan kargamentua utzi eta ziztu bizian egin zuten atzera bidaia, ez arrisku gabe. *Lauanaia* ihesean ibili zen *Almirante Cervera* korazatu militar erraldoiak harrapatu ez zezan, eta *Bedialauneta anaiak* hegazkin faxistek tirokatua izan zen. Salbu iritsi ziren baina, oraindik errepublikarren esku zegoen Ondarroara. Haiek guztiek ongi asko merezi dute, Iralak dioen moduan, "oroimen berezia eta pentsio bat". ■

# Lagunkor

Aholkularitza / Inmobiliaria

info+ 94 683 18 02

info@lagunkor.net

Artabide 12 / Ondarroa 48700 / Bizkaia



## Lucía Gricman, psikologoa

# “ZURE EROMENA BIZITZAREN ALDEKOA DA? ORDUAN ARAZORIK EZ, LOTURA SOZIALA GALTZEA DA ARRISKUA”

Psikologoa eta argentinarra da Lucía Gricman, eta buruko gaitza duen jendearekin asanblada oso emankorrak egiten ditu, Buenos Airesko zentro terapeutikoan. Eromenaz, medikalizazioaz eta psikoanalisiak jardun dugu.



Mikel Garcia Idiakez  
@mikelgi

### Zehazki zer egiten duzue zuen egoitzan?

Egonaldi terapeutiko intentsiboa egiten dugu, aurrez zentro psikiatrikoan sartuta egon diren pazienteekin; trantsizio moduko bat da, gizarteratzeko. Pertsona batek bere buruarentzako edo gainekoentzako arriskua duenean, zentro batean sartzen da, eta arrisku hori desagertzen denean, prest dago gurera etortzeko. Errehabilitazioaz gain (bizitza antolatzen laguntzeko) tailerrak egiten ditugu, sormena eta espresioa sustatzeko (txotxongiloen bidez, irrati bidez...), sormenetik abiatuta berreskuratu daitekeelako gizartearekiko lotura.

### Sormena da beraz gakoa?

Eromenak lotura soziala galtzera eraman zaitzake, eta gizartera lotuta egoteak ez du esan nahi ekonomikoki produktibo izatea, beste pertsonekin harremana edukitzeko gogoia izatea baizik; buruan gertatzen den gauza hain berezi hori (batzuk gaixotzera daramatzana), hain zurea den hori plano kolektibo batera eramateko modua da sormena, besteei zure ekarpena egiteko modua. Gogoan dut delirio paranoikoak ziztuen pertsona batek delirio horiei buruzko komikia sortu zuela; gizarretik bakartuta eta isolatuta uzten zuen eromen horrekin zerbait egin zuen, besteekin partekatzen.

### Bada esaten duenik eromena ez dela existitzen...

Truman Capoteren esaldi bat datorkit

burura: “Ez da beharrezkoa ero egotea hemen bizitzeko, baina gauzak errazten ditu”. Hor kokatu ohi naiz, pazienteekin hitz egiteko. Hasteko, konnotazio gutxiesgarria kentzen diogu ero hitzari, ez da zerbait txarra, denak bihurtu gaitzke ero egoera jakinen aurrean. Baina “denak gara eroak” baieztapenaren erlatibismoa tontakeria bat da, zure eromenak eraman zaitzakeelako adibidez zure burua eta besteak arriskuan jartzera. Denak gaudela ero? Hala pentsatu nahi baduzu ados, baina noiz aldentzen zaitu zure eromenak bizitzatik? Hori da gakoa; Nietzschek zioen moduan bizitza da balantza: zure eromena bizitzaren aldekoa da? Orduan ez dago arazorik, baina bizitzatik (sozializaziotik) urruntzen bazaitu esku hartu behar dugu. Hori da gure irizpidea.

### Hori da sendatzea?

Hori bera, zure eromenak bizitzen utz zaitzala. Egin behar duguna da pertsona bere komunitatetik ahalik eta gertuen mantendu. Eta ez naiz ari beti zoriontsu egoteaz, sendatzea ez delako ez sufritzea, sufrimendu hori eramateko eta horri aurre egiteko baliabideak izatea baizik.

### Gero eta gehiago jotzen al dugu dena patologizatzerara?

Bai, batez ere haurtzaroan, eta oso larria da, haurtzaroa psikiatrizaratu eta medikalizatu egiten delako. Droga-enpresa erraldoia den AEBetatik datorkigu joera eta umeen portaera oinarrikoenak medikatzen bukatzen dugu. Ume bat bizia izatea osasun onaren sintoma da, baina geldituta egoteko medikatzen dute. Ikastetxeak gain hartuta

daude, gazteek dituzten arazo sozialak eskolak jaten dituelako eta ohiko prozesua da ume ‘zaila’ kabinete psikologikora eramatea, hortik psikiatrara, eta psikiatratik medikatuta itzultzen da ikasgelara. Ez zaigu burutik pasatzen eskola birpentsatu behar dela, errazagoa da ikaslea patologizatzea eta statu quo bere horretan mantentzea. Arazo sozialak indibidual bihurtzen ditugu eta egokitzen ez dena kanpoan uzten dugu, eromenarekin berdina gertatzen da. Badakizu zer esan zigun asanbladan paziente batek? Beraiek sentikorrak direla, triste eta otzan nahi gaituen sistema honekiko sentikorrak, eta horregatik daudela egoera horretan.

### Pazienteen asanbladak antolatzea da zure ardura.

Hasieran ez zuten ulertzen nik esatea bat gehiago nintzela, denek ahotsa eta lekua zutela asanbladan. Subjektu politiko bezala birpentsatzen dugu gure burua, hiritar bezala, eta albisteez eta aktualitateaz hitz egiten dugu, hedabideek saldu nahi digutenaz... Gizartean pasatzen denaz pentsatzea ere terapeutikoa delako: giza kolektibo baten barruan parte hartzeak sendatu egiten du, bizitzeko gogoia ematen digu berriz ere. Minoriez asko hitz egiten dugu adibidez, gehiengoarekiko ezberdintzat hartzen diren kolektiboek, gurea barne. Berriki delirio asko jasan dituen paziente batek esan digu laguntzeko beharra sentitzen duela; asanbladan gaia aterata jendeak esaten zuen lehenengo norbere burua sendatzea komeni dela, eta bukaerarako ondorioztatu genuen besteei laguntzea terapeutikoa izan daitekeela. Bakarrik eta triste egon

naiteke, baina besteari on egin badiezaioket, hobeto sentituko naiz.

Edo Orlandoko diskotekan gertatuko sarraskiaz aritu ginenean, ikusi genuen hedabideek beti dutela jokabide berdina, errua ero bati leporatzea, indibidualki, atzean arazo sozial larriagoa dagoela pentsatu beharrean. Baina AEBetan arnabak eskuratzeko dagoen erraztasunaz aritu ginen eta niretzat lorpen handia izan zen pazienteei eromena deslotzea arriskutsua dela dioen estigmatik.

Gaixo egoteak eta gaixoa izateak zer esan nahi duen ere eztabaidatzen dugu. Kontatu nien duela gutxi esan zidatela asma nuela eta medikuz mediku denek azpimarratzen zidatela asmatikoa nintzela. Zer pasatzen zait etiketa horrekin eta zer egingo dut horren aurrean? Etiketez pentsatzeko balio izan digu, ez dutela zertan jende aurrean etengabe euren burua ero gisa aurkeztu, eurak gaizki baleude bezala eta gainerako guztiak ongi, bizitzaren parte ez balitz bezala une batzuetan ongi eta beste batzuetan gaizki egotea.

#### Egungo gizartea ero al dago?

Nire irakasle batek esan zidan egungo gizartearen gauzarik larrienetakoa normaltasuna dela. Muga indartsua dago normal izatearen eta ez izatearen artean, hori da egungo gizarteak sortzen duen fikzio handia. Parte izatea edo ez, horra hor bizi dugun patologia kolektiboa, kanpoan geratzeko arriskua oso gaizki daramagulako eta dena hainbeste psikopatologizatzen denez oso erraza delako kanpoan geratzea. Azkenean denak gaude at, normal izan nahi eta inork ez duelako fikzio hori lortzen. Kanpoan geratu naizenean, zer egin beharko nuke, berriz ere normal izaten ahalegindu, ala nire ezberdintasunetik jokatzen ikasi?

» “Eskola birpentsatu beharrean, errazagoa da ikaslea patologizatu eta medikatzea. Arazo sozialak indibidual bihurtzen ditugu eta egokitzen ez dena kanpoan uzten dugu”



#### Psikoanaliaren lurraldea da Argentina.

Batzuek uste dute psikoanalisi dela isilik geratu eta jendea entzutea, eta ez da hala. Mundua entzuteko jarrera etiko eta politikoa da psikoanalisi, eta praktika antikapitalista da, zure burua birpentsatzeko aukera ematen duelako, bizitzen ari zarena eta hartzen zoazen erabakiak zuk nahi duzunarekin lotuta al dauden hausnartzeko.

#### Psikoanalisi al da arazoei aurre egiteko modu onena?

Ospitale psikiatriko batean bukatu duten delitugileekin aritu naizenetan, sarri buruko gaitzetik harago mundutik at utzi duen problematika sozial bat ere ikusten dut euren artean, horrek ere eragina izan duela hartu duten bidean. Hortaz, ikuspegi sozialetik ere erantzun beharko genioke arazoari, kasuan kasu. Argentinan, esaterako, deso-

» “Parte izatea edo ez, horra hor bizi dugun patologia kolektiboa, kanpoan geratzeko arriskua. Azkenean denak gaude at, normal izan nahi eta inork ez duelako fikzio hori lortzen”

*“Jatorrizko komunitateen genozidioaren gainean eraikitako gizartea da argentinarra, arazo identitario handia dugu eta horregatik gure buruari galderak egiteko beharra dugu”.*

reka soziala oso handia da eta ezin dugu norbait entzun eta bere ekintzengatik moralki epaitu, pertsona horrek ez badu inoiz babes sozialik aurkitu edota biolentzian hezi bada. Gazte argentinarrak marjinalak dira asko zabaldu da pasta basea [kokainaren antzekoa] eta drogaren atzaparretan erori denarekin ez duzu pentsatzeko asti askorik, ekin beharra dago. Psikoanalisi edo beste edozein terapia indibidual gainditzen duten arazoak dira.

#### Kasuan kasu, beraz, ikuspegi psikoanalitiko, psikologiko, psikiatriko, soziala... uztartu daitezke.

Arazoei aurre egiteko modu asko daude, psikologo-psikoanalistak daude, psikologo-psikiatruk, terapia kognitibo-konduktualak... Soluzio azkar batek balio badizu, primeran; psikoanaliak gonbidatzen zaitu zure buruari pixka bat gehiago galdetzeraz, baina ez baduzu galderarik eta ondo bazaude segi aurrera zure bizitzarekin! Kontua da Argentinan gure buruari galdetzeko behar handia dugula. Nire teoria da jatorrizko komunitateen genozidioaren gainean eraikitako gizartea garena, europarron seme-alabak, eta arazo identitario handia dugula; horrek bultzatzen gaitu galdetzeraz, nondik gatozen, zer egiten dugun, zer garen... ■



## Ibilbide gidatuak

# ATZOKO, GAURKO ETA BIHARKO GASTEIZ EUSKALDUNA EZAGUTZEN

Euskara aspaldi desagertu zela Gasteizen, oraindik ere askotxoren ustea da. Lekukotzek garbi adierazten dute ez dela hala. Geu elkarteak ibilaldi gidatuak eskaintzen ditu, euskaraz eta gaztelaniaz, Gasteiz eta euskararen arteko lotura etenik gabea azaltzeko. Urri bukaeran Afrika iparraldeko darija hizkuntzan ere egingo dute ibilbidea.



**Onintza Irureta Azkune**

@oirureta

ARGAZKIA: GEU ELKARTEA

Gladys Giraldo Velásquez kolonbiarra da sortzez eta urte asko daramatza Gasteizen. Gaztelaniaz egin zuten ibilbide gidatua hartu zuen parte. Zapuztuta dago Giraldo, ez duelako euskaraz egiten, ez duelako ikasi. Arrazoi politiko, kultural eta sozialengatik euskara beharrezkoa dela iruditzen zaio. Horregatik, seme-alabak ikastolara eraman zituen, heziketa euskaraz egitea oso garrantzitsua zela uste baitzuen.

Ibilaldi gidatua interesgarria iruditu zitzaion, “hainbat tokitara joan ginen eta historia zatiak kontatzeak emozio-nalki ere gerturatzen zaitu, jakina historia bera ere garrantzitsua da”. Anderieñok egindako lana azpimarratu du Giraldo. Klandestinitatean irakasten zuten anderieñoen berri bazuen, baina Gasteizko adibide zehatzak ez zituen ezagutzen, eta izen-abizenak jartzea, eta kale jakinetan kokatzea, interesgarria iruditu zitzaion. Euskararen historian emakumezko erreferenteak lantzea ere gustatu zitzaion: “Historiako erreferenteak gizezkoak dira eta ikastolakoak emakumeak dira. Ikusgarritasuna har-

tu zuten, eguneroko lana, inurri lana, erakutsi zuten”. Atzera begira bakarrik ez, gaurko eta biharko kontuak ere ezagutu zituen Giraldo ibilbidean: “Garai bateko kontuak ziren ikastola klandestinoak, baina Ramón Bajo ikastolaz hitz egin genuen eta hori gaurko kontua da, nola eskola euskalduna bihurtu den, D eredia”.

### Haurrak ikastolara eraman zituztenak bisitarien artean

Petra Nisok, haren senarrak eta beste bi lagunek ere ibilaldi gidatua egitea pentsatu zuten. Niso Burgoskoa da. Berak eta bere senarrak ez dute euskara ikasi, baina seme-alabak ikastolara eraman dituzte, “kontzientzia politikoa genuen eta euskararen alde egin genuen”. Ibilbidetik gogoan du ikastolak klandestinitatean egon zireneko garaia.

Giraldo eta Nisok parte hartu zuten saio hartan gehiena jende nagusia zen. Batzuk betiko gasteiztarak, beste batzuk Espainiatik etorritakoak 60 eta 70eko hamarkadetan. Batzuek eta besteek euskara ikasteko aukerarik ez



zuten izan, eta denek haurrak ikastolara eraman zituzten.

### Gutziz galdu al zen euskara Gasteizen?

Zergatik antolatzen ditu Geu elkarteak halako ibilbideak? Galdera hori egin diogu Azaitz Unanue gaur egun gidari lanak egiten dituen Geu elkartearen kideari: “Hemen askotan entzuten da euskara aspaldi galdu zela Gasteizen, Erdi Arotik aurrera pixkanaka galtzen joan zela. Jendeak usteko du asko jota XVIII. mendean hitz egin zela azken aldiz”. Gasteiz eta euskararen historiaren arteko lotura lekukotzen bidez azaldu nahi zuen elkarteak, hasieran euskaraz, euskaltegiengatik, ikastetxeengatik, mintzalagunengatik, euskaltzaleengatik, eta gero gaztelaniaz ere bai.

Era honetako galderak erantzuten saiatzen dira ibilbideetan: Zergatik bi izen gure hiriak: Vitoria eta Gasteiz? Euskarazko lehen hiztegia Gasteizen! Egia al da hori? Ba al da idazle euskaldunik Gasteizen? Gaur egun ere euskaldun gutxi al dago Gasteizen?



Salburua auzoko Salburu euskara elkarteko kideak Alde Zaharreko ibilbidean.

Ordu eta erdi irauten du ibilbideak eta Alde Zaharretik ez dira ateratzen. Sei atal jorratzen dituzte: lekukotzak, irakaskuntza eta hezkuntza; gizarte mugimenduak; helduen alfabetatze eta euskalduntzea; kultur adierazpenak; eta eragile instituzionalak eta proiektu berriak.

2011. urtean izan zuen sorburua egitasmo horrek. Euskaltzaleen Topaguneak Arabako Mintza Egunerako halako ibilbide bat proposatu zuen. Gasteizen euskararen historia laburtzen zuen gidoia baliatuta garatu da *Atzoko, gaurko eta biharko Gasteiz euskalduna* ibilbidea. ■

## DARIJA HIZKUNTZAN ERE BAI

Urriko 22-23 asteburuan, lehen aldiz darijaz eskainiko dute ibilbidea. Darija arabieraren eratorria da, Afrika iparraldean hitz egiten da, Marokon eta Aljerian batik bat. Sahararak ere –hassaniera egiten dute– ulertzen dute. Nadia Qourchi izango da gidari lanak egingo dituena. Zumarragan bizi da eta Gasteizen ari da itzulpengintza ikasketak egiten. Euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen den ibilbideko edukiak itzuli ditu dagoeneko, baina berak badaki hainbat egoeratan azalpen gehiago eman beharko dituela, darija hitzunei ezezagu-

nak egingo zaizkielako hainbat kontzeptu. Adibidez, euskaltegiak edo gau eskolak zer diren azaldu beharko du. Urriko saioan gazteak espero ditu Qourchik, “haiek dutelako harreman gehiago euskararekin”.

Darijaz ibilbidea, baina euskara ardatz. Azaitz Unanuek azpimarratu duenez, euskara kohesio tresna gisa landu dute: “Bizi diren lekuko hizkuntzaren egoera, errealitatea, ezagutzen badute, errazago hartuko dute beraien hizkuntzaren kontzientzia ere. Hizkuntzen mapan ariketa horrek integrazioerako bidea ematen du”.

 **andoainDARRA**  
euskaraz  
eguna

IRAILAK 24

Egun osoan Andoaindara Goikoplazan:

**GOIZEAN, 10:00etan hasita:**

- Umeentzako lantegiak
- Neska eta mutilen pilota partidak
- Diana herrian zehar
- Argazki-rallya

**EGUERDIAN**

- Marmitakoa
- Patata tortilla lehiaketa
- Fino's Band
- Dingo!!

**ARRATSALDEAN**

- Andoaindarrak izar finala
- Dantza
- Kantu kalejira
- Bertsolariak
- EROmeria
- BasqExtremFolk
- Zo-Zongo!!! Batukada

www.andoaindaraeuskaraz.eus



**Gurera bildu eta  
EUSKARAZ  
KIRIBILDU!!**





# MERKURIOAREN KUTSADURA MUGATZEKO LEGEDIA EGOKITZEAR DA EUROPAR BATASUNA

2013. urtean Nazio Batuen Erakundeak Minamatako Hitzarmena adostu zuen, merkurioak eragindako kutsadurari mundu osoan erantzuna emateko asmoz. Orain, Europako Batzordea, hitzarmena oinarri hartuz, legedi propioa berritzeko pausoak ematen ari da. Hainbat taldek lege proposamena nahikoa ez dela uste dute, eta araudia zorroztearen alde agertu dira.



Igor Agirre  
@igoragirre

Merkurioak giza osasunean eta ingurumenean dituen eragin negatiboez arduratuta, Nazio Batuen Ingurumen Programak (NBIP) merkurioaren inguruko lehenengo ebaluazio globala egin zuen 2002. urtean. Bertatik ateratako ondorioak 2013an berriro zituen taldeak. 2009an, ordea, NBIPko administrazio kontseiluak juridikoki loteslea izango zen nazioarteko akordio bat osatzea adostu zuen eta horren ondorioz sortu zen 2013. urteko urrian eta NBEren babesean Minamatako Hitzarmena.

Merkurioaren kutsadurari aurre egiteko, nazioarteko hitzarmenak Japoniako Minamata hiriarren izena hartu zuen. XX. mendearen erdialdean, hiri horretako biztanle ugari merkurioko kutsatutako arrain eta mariskoa jateagatik pozoitu ziren. Gertaera horregatik hain zuzen, Minamatako gaixotasuna deitzen zaio merkurioko intoxikazio larriak sortzen dituen sindrome neurologikoari.

Hitzarmena aurkeztu eta berehala, hainbat estatuk izenpetu zuten. Gaur egun, 128 sinatzaile ditu merkuriolari buruzko nazioarteko akordioak. Onartu zen garaian, 2013. urtean, 2016rako loteslea izatea espero zen. Sinadura horiek, ordea, ez dituzte bertako araudi

eta jarraibideak betetzera derrigortzen estatu sinatzaileak. Minamatako Hitzarmena lotesle bilakatzeko, 50 estatuk berretsi behar dute akordioa; hau idazteko unean, 29k besterik ez dute egin. Tartean, Frantziako eta Espainiako Estatuak hitzarmena sinatuta badute ere, oraindik ez dute berresteko pausoa eman.

## Minamata Europako legedira

Gaur egun, Europar Batasuneko legeek merkurioko purua eta merkurioko duten konposatuak esportatzea debekatzen dute, zenbait produktutan merkurioko erabiltzea galarazten dute eta merkurioko sortutako kutsadurari erantzuna eman nahi diete. Hala ere, alde batzuk daude Minamatako Hitzarmenaren eta EBN indarrean den legediaren artean. Hutsune horiek betetzeko asmoarekin, 2016ko otsailaren 2an Europako Batzordeak bi proposamen luzatu zituen

» Europar Batasuneko legeek merkurioko esportatzea eta zenbait produktutan erabiltzea debekatzen dute

Minamatako akordioa onartzeko aukera moduan: bata, Europar Batasunaren izenean hitzarmena berrestea edo bigarrena, merkuriolari aurre egiteko araudi berria proposatzea. Azkeneko horri jarraituz, lege proposamen berria prestatzen ari da Batzordea.

Orain arte, 2008ko Merkurioko Esportatzea Debekatze Araudia da gaiaren inguruko xedapen legal nagusia Europar Batasunean. Lege horren bidez debekatu zen EBk zenbait merkurioko esportazio egitea 2011. urtetik aurrera. Zehazki, metalaren konposatuak eta haiekin egindako nahasketak –pisuaren %95 gutxienez merkurioko den kasuetan– esportatzea dago galarazita orduan; aldiz, debekuak ez die eragiten bestelako merkurioko produktuei.

Europar Batasuneko legedia Minamata egokitzeko proposamenen artean daude, besteak beste, merkurioko inportazioa debekatzea artizan erabilerarako eta eskala txikiko urte meatzaritzarako. Horrekin batera, 2018rako, hortzetarako amalgama forma kapsulatuan soilik erabili ahalko da eta 2021. urte amaierarako hortzetako amalgamaren erabilera gradualki deuseztatzea proposatu da. Merkurioko kantitate jakin bat duten produktuak esportatu, inportatu eta fabrikatzea ere arautu nahi dute proposamen berriaren bidez, eta aldi berean, merkurioko erabilera berriak eragotzi nahi dituzte.



*Lerro hauen gainean, Minamatako Hitzarmenaren azkeneko bilera, Jordanian. Ezkerreko argazkian, artisautzako urre meatzariak, merkurioa erabiltzen. Eskuinean, hortzetako amalgama; Europako Batzordeak proposatu du 2018rako forma kapsulatuak bakarrik erabili ahal izatea halakoak, eta 2021era bitartean gradualki erabilera deuseztatzea.*



### Kritikak lege proposamenari

Araudiaren zirriborroen jarraipena egin ondoren, Europako Ingurumen Bulegoak anbizio gutxiko proposamena aurkezteko kritikatu dio Europako Batzordeari. Beste gauza askoren artean, merkurio gehigarria duten produktuen esportazioa debekatzeko baldintzak gogortzea eskatu dute eta merkurioaren erabilera gradualki ezabatzea odontologian eta prozesu industrialetan. Suediak ere proposamena kritikatu du EBko Ingurumen Kontseiluan, anbizio gutxi duela iritzita, batez ere hortzetako amalgamei dagokienez.

Europako Ezker Unitarioa/Iparaldeko Ezker Berdea talde parlamentarioak ere kritikatu du Europako Batzordeak aurkeztutako lege proposamena. Taldearen ordezkariak, Stefan Eck eurodiputatu alemaniarra, ikuspegi "minimalista" izatea eta anbizio falta egotzi dizkio Batzordeari, merkurioaren kutsadurari eta elementu horrek osasun publikoan sortzen dituen eragin negatiboei aurre egiteko orduan. "Batzor-

dearen proposamena 'araudi hobea'-ren biktima izan da", dio Eckek, burokrrazia gutxituz arautze-prozesuak sinplifikatzeko helburua duen Jean-Claude Junckerren estrategia kritikatu. "Metodo errentagarria aukeratzea kaltegarria da eta ez dator bat Minamatako Hitzarmenarekin. Argi dago proposamenak ez diola behar bezain besteko arreta jartzeko interes publikoari", adierazi du alemaniar parlamentariak.

Hainbat talde ekologistak abian jarritako Zero Merkurio Kanpainaren koordinatzaile Elena Lymberidi-Settimoren arabera ere, "Batzordeak gutxienekoetan oinarritutako proposamena aurkeztu du; legedia hobetzearen aitzakiapean, proposamenak kontsulta publikoa, industria aurrerakoiaren ahotsa eta merkurioaren inpaktua ebaluatzen duten aurkikuntza zientifikoak baztertzen ditu".

Europako Alderdi Berdea EBtik kanpoko herrialdeetatik merkurioa inportatzea debekatzearen alde dago, lege proposamenak diogen moduan. Bestalde, Europar Parlamentuko Equo alderdiko

bozeramaile Florent Marcellesik azaldu duenez, "Batzordearen lege proposamenak, Minamatako Hitzarmenak baino asmo handiagoak baditu ere, merkuriodun produktuak EBtik kanpora esportatzeko eskubidea mantentzea ekarriko luke, europar barne merkaturan produktu horiei mugak ezartzen zaizkien arren". Marcellesiren hitzetan, "onartezina da politika hori, pertsonen osasunak balio bera baitu Europako herrialdeetan eta Europatik kanpokoetan".

Ekologistak Martxan taldeko Leticia Baselgaren arabera, Minamatako Hitzarmena bera ere ez da nahikoa merkurioaren arazoari aurre egiteko. Baselgaren esanetan, "hitzarmena motz geratzen da, denbora luzeegia ematen duelako proposatzen dituen neurriei erantzuteko". Hala ere, beraren ustez, merkurioaren gaian arazoa legez kanpoko merkataritza da. Hori horrela, Indonesia, Mexiko eta Asia ekialdeko hainbat herrialdeetan agertzen ari diren merkurio meatze berriak salerosketa gune garrantzitsu bilakatzen ari dira.



» Giza erabileraren ondorioz munduan sortutako merkurio emisioen %6 eragiten du Europak; iturri nagusiak ikatza erabiltzen duten zentral termikoak eta kloroaren industria dira

Jarduera horrek mundu mailako urre-meatzaritza artisauak duen merkurio eskaria elikatzen du, bereziki Asian eta Latinoamerikan.

### Merkurioaren erabilera Europan

Giza erabileraren ondorioz munduan sortutako merkurio emisioen %6 eragiten du Europak. Nolanahi ere, Europako Ingurumen Agentziak 2015ean argitaratutako datuen arabera, Europar Batasuneko kideen merkurio isuriak %74 gutxitu dira 1990etik 2013ra. EBko merkurio kutsatzaile nagusiak Polonia (%17,2), Alemania (%17), Italia (%13,4), Erresuma Batua (%10,1) eta Espainiako Estatuak (%8,9) dira.

Europan, merkurio kutsadura iturri nagusiak ikatza erabiltzen duten zentral termikoak eta kloroaren industria dira. Horiekin batera, meatzaritzak eta hondakinen deuseztatzeak ere eragin handia dute.

Europar Batasunean RASFF (ingeleseko sigletan) izeneko alerta sistema dago jantzi-eraketarako eta pentsuetarako. Bertako datuen arabera, 2015. urtean metal astunen-



## ERRAUSTEGIETAKO TXIMINIAK, BESTE MERKURIO ITURRI BAT

Hondakinak erretzea da merkurioa ingurunerara zabaltzeko errudun nagusietakoa. Erraustegien tximiniek merkurioa jaurtitzen dute airera, baita zementu-fabrikek ere. Ekologistak Martxaneko Leticia Baselgaren esanetan, "erraustegiak arriskuak badira ere, zementu-fabriketako tximinietatik zabaltzen dena gutxiago zaintzen da".

Merkurioa zabaltzearen arrazoia da erraustegietan erretzen diren materiale-tako metal pisutsuak ez direla suntsitzen errauste prozesuaren bidez. Baselgaren arabera, horixe gertatzen da adibidez erretzen diren pilekin. Greenpeacek 2001. urtean argitaratutako txosten ba-

tean argitzen denez, erraustegietako tximinietatik kanporatzen diren metal pisutsuen maila asko gutxitzea lortu da azken urteetan teknologiaren ondorioz, merkurioaren kasuan izan ezik.

Erraustegien adibidea gurera ekarrita, Bizkaiko Zabalgarbi erraustegiak, esaterako, 2012. urte osoan 1.484 gramo merkurio zabaldu zituen airera tximinia nagusitik. Isuri hori Bilboko biztanleen artean banatuz gero, biztanle bakoitzak 4,27 miligramo merkurio irentsiko lituzke urtean. Datu esanguratsua, Osasunaren Mundu Erakundeak 70 kiloko pertsona batentzat urteko 6,06 miligramoko merkurio kopurua baitu zehaztuta onargarri moduan.

gatik 138 abisu eman ziren, eta elementu horien guztien artean, merkurioaz gain, kadmioa, beruna eta artsenikoa ere baziren, besteak beste. Dena dela, 104 kasu arrainetan eta bestelako arrantza-pro-

duktuetan agertutako merkurioarengatik izan ziren. Aipatzekoa da arrainetan legez onartutakoa baino merkurio gehiago izateagatik emandako abisuen %65 estatu bakarrari zegozkiola: Espainiakoari. ■

## Aisialdian balioetan hezteko ikastaroak Bizkaiko Urtxintxa Eskola

- Aisialdiko begiralea
- Aisialdiko zuzendaria
- Jendarte kultur dinamizatzailea
- Hezkidetzan aditua
- Feminismoan sakontzen
- Haurren parte-hartzean murgiltzen
- Aniztasun funtzionala aisialdian aditua
- Kulturarteko hezkuntzaren hastapenak

**+IKASTARO LABURRAK**

\*Zure beharretara egokitutako trebakuntza ere eskaintzen dugu!

**MATRIKULA IRAILAREN 1ETIK 30ERA**

www.urtxintxaeskola.eus  
urtxintxa@urtxintxaeskola.eus  
94 432 04 45  
Zabalbide 26, behea 48006 Bilbo.



Bizkaiko  
**urtxintxa**  
eskola

# LURRIKARAK ATZEMATEKO, DRAGOIAK



Nagore Irazustabarrena  
Uranga

@irazustabarrena

Luoyang (Txina), K.o. 132. Zhang Heng (78-139) kartografo, matematikari, astronomo, margolari eta idazleak lurrikarak antzemateko gailu bat aurkeztu zuen Ekialdeko Han dinastiaren gorte inperialen, sismografo modernoak asmatu baino 1.700 urte lehenago (Milne, Ewing eta Grayk Japonian garatuak, 1880ko hamarkadan).

Zhangen sismografoa brontzezko pitxer handi moduko bat zen, bi metro inguruko diametroa zuena. Puntu kardinalak seinatzen zituzten zortzi dragoi zituen erantsita eta dragoi bakoitzak kobrezko bolatxo bat zeukan ahoan. Lurrean, zortzi dragoien azpian, beste hainbeste igel zeuden, horiek ere puntu kardinaletan kokatuta, ahoa zabal-zabalik. Lurrikara gertatzen zenean pitxeraren hutsuneak dardararen amplifikadore moduan jokatzen zuen eta pendulu bat mugiarazten zuen. Penduluak barruan zeukan mekanismoa abian jarri eta dragoietako batek zeukan bolatxoa askatzea eta igelaren ahoan sartzea eragiten zuen. Metalen talkak egiten zuen zaratak jakinarazten zien ingurukoei lurra dardarka hasi zela eta bola irentsitateko igelak adierazten zuen lurrikara zer norabidetan gertatu zen.

Zhang Hengen seismo detektagailuari ezin zaio teknikoki sismografo



JAN PAJAK

*Zhang Hengek duela ia 2.000 urte asmatutako sismografo originala ez da gorde. Goiko irudikoa erreplika bat da, jatorrizkoa baino askoz txikiagoa, 40 zentimetro luze besterik ez baita.*

edo sismometro deitu, lurrikararen intentsitatea ez baitzuen neurtzen; sismoskopio esan beharko genioke, mugimendu sismikoa gertatu zela soilik adierazten baitzuen.

Baina badirudi zientzialari eta artista txinatarraren tramankulua oso zehatza zela. Behin, 143. urtean, sismoskopioak lurrikara izan zela adierazi zuen, mendebaldeko dragoiak bola askatuta.

Baina Luoyango gortean ez zuten dardararik txikiena ere sumatu. Besteak beste, ilargi eklipseen azalpen zuzena eman eta egutegia urtaroekekin bat etor zedin egokitu zuen jakintsuaren asmakizunak kale egin ote zuen?

Handik egun batzuetara mezulari bat iritsi zen jauregira, esanez lurrikara bat izan zela Gansu probintzian, Luoyangetik 600 bat kilometrora, mendebaldean. ■



BOULDER HISTORY MUSEUM

## Girl Scouts, MI5en zerbitzura

Lehen Mundu Gerra amaierako desklasifikatutako txosten baten arabera, 1914tik 1918ra 90 girl scoutek Erresuma Batuko Segurtasun Zerbitzuarantz lanean aritu ziren, informazio sekretua pasatzen. Batez beste, neskatok astean 50 penny jasotzen zituzten mezulari lanak egitearen truke; MI5eko arduradunek, itxuraz, erabate-

ko konfiantza zuten nerabe haiengan, mezuetako batzuk ahoz pasarazten baitzizkieten.

Txostenaren arabera, gerraren hasieran boy scoutak ere erabili omen zituzten, baina aurrerago mutikoak baztertzea erabaki zuten, neskak baino "berritsuagoak eta zalapartatsuagoak" zirelako. ■



# Zumitzan, hor hormonak



Jakoba Errekondo

[jakoba@bizibaratztea.eus](mailto:jakoba@bizibaratztea.eus)

Hormona tartean gabilta azkenaldi honetan. Zuhaitz eta zuhaixka, edozein, ugaltzeko boladarik aproposenetakoa da eguna moztan ari den urteko sasoi hau. Komeni da ugalketarako landatu nahi dugun aldaxkek itsasteko ur-laguntzailea hormonaz gainezka edukitzea. Haziekin bezala, beste zenbait landare zatirekin ere osa daiteke ur hori; ur horri hormonak erantsi, alegia.

Zumeak (*Salix spp*) baliatzen dira hormona iturri gisa. Gurean eskuera zume ugari dugu: zume jatorra edo mihime-narra (*Salix viminalis*), zume hauskorra (*Salix fragilis*), zume hibridoa (*Salix x rubens*), zume gorria (*Salix purpurea* subsp. *lambertiana*), zume hostoestua (*Salix elaeagnos* subsp. *angustifolia*) eta zume negartia (*Salix babylonica*). Guk "sahats zuria" deitzen diogun *Salix alba* zuhaitzari zume zuria deitzen dionik ere bada. Zikulusaltsa polita dugu familia horrekin ere! *Salix* generoko landare jendearen artean euskaldunok zumeak eta sahatsak bereizten ditugu. Baina hori beste baterako utziko dugu.

Zumeak urzaleak dira: erreka, ibai, errio, zingira, ubare, urlo, ur-geldi, ur-ustel, aldaparo eta antapara,

erreten... Ura non zumea han! Ura du altzo. Adar bat hautsi eta uretara erortzen denean, hark eramango du beste toki batera, eta lurra ukitu orduko itsastean lagundu. Hara zume berria. Aise errotzen da, iaio asko. Abilezia hori hormonek ematen diote.

Zumeak sustraiak emateko duen erraztasun hori ez du edozein landarek. Asko dira adarretik sustraiak emateko gaitasuna izan daitekeenik sumatu ere egiten ez dutenak. Horiek adarretik ugaltzeko baliatuko dugu zumea.

Zumearen adar muturrak behar dira. Gazteenak, gurienak, hor ari baita hazten: hor hormonak. Arrabete luze, gutxi gorabehera; hostoak kendu eta adarra bera erabiliko dugu. Bi era daude: infusioa edo beratzea. Infusioa egiteko

ur irakinetan sartu, surtatik atera eta ontzia estalita bertan utzi ordu laurden batez. Beratzeko, berriz, pare bat egunez uretan sartuta eduki adarrak.

Itsastea nahi dugun landareari adarra moztu, muturreko hostoak bakarrik utzi azpiko aldea soilduz, ebakia saiheska egin, hori zume-uretan busti eta lurrean sartu. Ureztatzeko ere ur hori erabili. Hozkailuan hilabeteak irauten du. ■



Ura non, zumea han.

Argazkian, zume negartia (*Salix babylonica*).

EMÓKE DÉNES-CC BY SA

Zure jendea, zure  
hedabidea, zure iragarkia:

**JARRI PUBLIZITATEA HEMEN**

943 371545 • [publiz@argia.eus](mailto:publiz@argia.eus) • [www.argia.eus/tarifak](http://www.argia.eus/tarifak)

**ARGIA**



ELIKAHERRIA.EUS

Abuztuaren 20an Iratiko Xakiak zigiluaren aurkezpenean.

## IRATIKO EKOIZPENAK KOOPERATIBA

# Pirinioetan jan eta bizi



**Garazi Zabaleta**  
@tirikitran

Bertako ekoizle txikiek eskaintzen dituzten kontsumitzaile gure bailara eta herriari bizitasuna ematen dietela ezin uka. Bide hori sustatzeko sortu zuten Iratiko Ekoizpenak kooperatiba, Aezkoan (Nafarroa).

Kooperatibak Orbaran dauka lokala. Taberna eta jatetxe zerbitzua dute, baita beren produktuak saltzeko denda ere. Kontratututako bi bazkide langileez gain, bestelako bazkideen ekarpenekin funtzionatzen du kooperatibak: proiektua babesten duten bazkide laguntzaileak zerbitzuen bazkide diren nekazari edo abeltzain autonomoak, eta kontsumo bazkideak. Beren produktuen eraldaketarako kooperatibako sukaldea erabil dezakete azken horiek. Lan hori bertan eginda, osasun-baimen eta ziguilu propioarekin merkaturatu ditzakete produktuok ekoizleek.

### Iratiko Xakiak

Hori da Nafarroako Pirinioetako produktuak sustatzeko kooperatibak bultzatu duen zigilua: Iratiko Xakiak. Aez-

koa, Erroibar, Artzibar eta Luzaideko bailaretan ekoiztutako nekazaritzako elikagaiak eta produktu artisauroak biltzen ditu markak.

Bertako produktuen babesetik harago, bultzatzaileek bailara horietako bizitzaren aldeko apustua ikusten dute proiektuan. "Bada aukerarik herri hauek bizitzeko, bertan lan eginez, eta ez lotarako soilik erabiliz". Turismoari begira ere ate asko zabalik daudela diote kooperatibako kideek, orain arte ez baita ia bertako produktuen eskaintzarik egon turista dezente jasotzen dituen inguru horretan.

### Bultzada beharra

Udalbiltzaren "Euskal Pirinioetan lan eta bizi" programan aukeratutako proiektuetako bat izan zen Iratiko Ekoizpenak kooperatiba. Elikagaien eraldaketarako enpresaren ideia buruan zeukaten hainbat bizilagunek lehenagotik, baina programak emandako diru-laguntza ideia proiektu bihurtzeko behar zuten bultzada izan zen. ■



## ALTZA PORRU

### Irribarrearen baratzea

Marrazkilariak:

Asisko, Unai Iturriaga,  
"mattin" Martiarena, Ainara Azpiazu,  
Antton Olariaga, Zaldieroa,  
Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €



## BIZI BARATZEA

### Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: [www.argia.eus/bizi-baratzea](http://www.argia.eus/bizi-baratzea)  
@bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuen eskaerak:

☎ 943 371 545 · [www.argia.eus/denda](http://www.argia.eus/denda)

## AURKEZPEN HITZALDIAK

**Irailak 23: Munitibar**  
19:00etan. Lekua zehazteke.

**Irailak 28: Elgoibar**  
19:00etan, Izarra elkartearen.

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN

[sustapena@argia.eus](mailto:sustapena@argia.eus) · ☎ 943 371 545



# ARGIAKOEN GUNEA | GURE GAIK DIRA GURE BALIOAK |



Parte hartu iraileko zozketan eta irabazi

Aste honetako sari nabarmendua

## Desazkundera, ondo bizitzea eta elikadura burujabetzaz hausnartzeko koadernoak

Mugarik Gabe Gobernu Kanpoko Erakundeak gizabanakoon zein herri ezberdinen eskubideak urratzen dituzten bidegabekeriak salatzearekin batera, berauei aurre egiteko proposamenak plazaratzen ditu. Hein horretan, gizarte justizia eta pertsona eta herri guztien eskubide indibidualak zein kolektiboak bultzatu ez ezik, bizitza jasangarriagoetarantz ibiltzen hasteko edota murgiltzen jarraitzeko apustua egin du oraingoan. Bide horretan, Desazkundera,

Ondo Bizitzea eta Elikadura Burujabetzaz Argiako irakurleek hausnartzera gonbidatu nahi ditu. ARGIAKOEN GUNEAN, hortaz, bi koaderno izango dira zozketa-gai hilabete honetan zehar; lehena, Desazkundera eta Ondo bizitzea, eta bigarrena, Elikadura Burujabetza Genero ekitatearekin izenekoak. Biak ala biak, Mugarik Gaberen apustu handi bezala kokatuak, gai hauen inguruan hausnartzeko aukera eskaintzen digute.



### MUGARIK GABE G.K.E.

Gipuzkoa: 943 445 977 / Bizkaia: 944 154 307 / Araba: 945 277 385  
www.mugarikgabe.org

#feminismoa  
#iraunkortasuna  
#elikaduraburujabetza  
#herrienmundua

## Hilabeteko gainerako sariak



**Ekologistak Martxan**-ek Euskal Zor ekologikoa inguruan egindako liburuxka eta dokumentala (4 sorta).



**Lanki** ikertegiak argitaratutako Joseba Azkarraga soziologoaren "Hezkuntza, gizartea eta eraldaketa kooperatiboa" (4 liburu).



**Txatxilipurdi** elkarteak kaleratutako SUA mahai jolasa, euskal mitologiako pertsonaiekin ikasi eta jostatzeko (4 joko).

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



**BIZIBARATZEA.EUS**

## Errekondoren tenplu berria



**Itsaso Zubiria Etxeberria**  
@itsasozubiria

Iritsi da eguna. Jakobitek internet ere konkistatu dute. Lurra, diote, dela bizi honen oinarria; landareak, eman eta hartu... Baina bat baino gehiago izango da Jakoba Errekondoren jakinduriarekin liluraturik ordenagailuaren aurrean *kieto* geratuko dena, sarean harrapatuta. Behin amaraunean, Errekondo bera enkargatuko da irakurleari ipurdia mugiarazi eta lurrari ematen; webgunean leitutako guztiarekin lurraren tentazioari ezin utsiko dio.

Argia ikusi du irailaren 8an bizibaratzea.eus webguneak, eta ez Amabirjina- ren mirariz. Azken hilabetetako lanaren fruitu gozoa izan da, ARGIAren eta Iametzaren hazitik ernatua. *Bizi Baratzea best sellerak* sortutako fenomenoaren bueltako hurrengo proiektua da honakoa, eta bertan bildu nahi da landareen inguruko jakintza guztia. Hasi Jakobak berak azken bi hamarkadetan ARGIAN idatzitako artikuluetatik eta Euskal Herriko nekazaritzaren inguruko agenda oso bateraino.

Eman eta hartu filosofia protagonista da sareko orrialdean ere, eta jakintza partekatze dago prestatuta. Irakurleak aktiboa izatea da helburua, eta bere gal-

derak, zalantzak, aholkuak bidaltzeko aukera du. Galdera horiek Jakobak berak erantzungo ditu zuzenean, eta erabiltzaileek ere utzi ahal izango dute iruzkina. Horrez gain, Euskadi Irratian larunbat goizetako saioan adituari egindako galderak ere webgunean daude irakurgai. Agendan ekitaldiak gehitzeko aukera ere badago. Askotan herrietako ekintzak inguruan izaten dute soilik oihartzuna, eta txiki horiek garrantzia dutenez, agenda osatzeko aukera guztiok izango dugu. Eta behin irakurlea aktibatuta, nekazaritzari eta landareei lotutako hiztegia osatzen laguntzerik ere badu. Badakigu Euskal Herrian oso modu ezberdinak ezagutzen direla gauza bera izendatzeko, eta horiek guztiak jasotzea da helburua.

Baina zer da lurra ilargirik gabe? Ilargiaren gorabeherari lotutako asteko lanak ere proposatzen zaizkio baratze-zainari, egunean eguneko jardunak zein diren jakin dezan.

Eta jarraituko nuke webgunearen xehetasun guztiak kontatzen, baina gehiegi jakin beharrik ez dago amaren legea ulertzeko; sareko baratzearen trikimailu guztiak ezagutu nahi badituzue, bizibaratzea.eus. ■

*“Hor jarraituko dogu gustora zuen lan ona jarraitu eta disfrutetan”*

**Ivan Vicente, ARGIAkoa**



## ARGIA Eguneko bazkarian ere Txikitik eragiten

Urriaren 1ean ospatuko dugu aurtengo ARGIA Eguna, Ondarroan. Goizean goizetik egongo da zertan parte-hartu (ikus kontrazaleko egitaraua), eta 14:00ean Itsasaurren herri bazkaria egingo dugu. Elikadura burujabetzarekin ere *txikitik eragiten* jarrai dezagun, aurtengo menua, hauxe izango da:

- Eskualdeko produktu ekologikoe-kin egindako entsalada.
- Bertakoek egindako marmitakoa.
- Jogurta eta euskal pastela.
- Edariak, ogia eta kafea.

Langabetu, langile prekario eta ikasleek 12 euro ordainduko dute, eta soldatapeko langileek 15 euro.

Bazkaritarako lekua hartzeko, deitu ARGIAra (943 371545) edo idatzi denda@argia.eus-era.

## ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:** Astelehenetan, 8:00etan.
- **Euskalerrria Irratia:** Astearteetan, 16:15ean.
- **Xorroxin Irratia:** Astearteetan, 18:00etan.
- **Info7 Irratia:** Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Bizkaia Irratia:** Asteazkenetan, 11:30ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:** Ostegunetan, 10:30ean.



# LEKEITIO ETA KATALUNIAREN ARTEKO SUA

Lekittoko Deabruak taldea da Euskal Herrian piroteknia eta kale antzerkia uztartzen dituen bakarretakoa. Herriko Kale Antzerki jaialdian inbidiaz suari begira maiz egondako gazteek 2012an ekin zioten emanaldiak prestatzeari. Uda honetan Kataluniako *correfoc* emanaldirik handienean parte hartu dute.



**Ale Goikoetxea**

@alegoikoetxea

ARGAZKIAK: LEKITOKO DEABRUAK

Umetatik hanka-paluetan ibilitakoak batzuk, han eta hemengo antzerki emanaldietako protagonista txikiak besteak eta Kale Antzerki jaialdian hesiak jartzen ibilitakoak gehienak; baina beste ezeren gainetik, suaren inguruan ibiltzeak, eta su horrek sortzen dien zirrarak batzen ditu Lekittoko Deabruak kale antzerki taldeko lagunak.

Euskal Herrian piroteknia eta kale antzerkia uztartzen dituen talde bakarretakoa da Lekeitiokoa, eta beraiei zaletasuna urtero uztailean herrian ospatzen den Kale Antzerki jaialdiari esker ezagutu dutela diote taldeko kideek. "Beste herritar askoren moduan, Kale Antzerki jaialdira gonbidatutako su ikuskizunen esperoan egoten ginen, su artean olgetan ibili ahal izateko" azaldu du Gorka Rodriguez Deabruak taldeko kideak.

"Suzko kalejira horietan ikusitakoa gusatzaten zitzagun, bizi egiten genuen baina sekula ez genuen imajinatuko guk geuk ere antzeko ikuskizunak prestatzeko gaitasuna izango genuenik".

## Ezerezetik hasi beharra

Aurretik Kataluniatik etorritako taldeak ezagututa, Lekeition ere antzeko talde bat sortzeko aukeraren inguruan bueltaka hasi ziren kide batzuk. Ideiak itxura hartu zuen neurrian, taldera gero eta lagun gehiago batu ziren, eta San Juan bezperan deabru mozorro eta katamaloak jantzita Lekeitioko kaleak su eta txinparten distiraz apaindu zituzten. 2012ko ekaina zen. "Hasiara guztien moduan, gurea ere ez zen erraza izan, zerotik hasi behar izan genuen, horrek dauzkan zailtasun guztiekin" azaldu du



Rodriguezek. "Denok ginen su zaleak baina inor ez zen mundu horretan ibilitakoa, eta are gutxiago profesionala" aipatu du Hodei Izarra taldekideak. "Hasiatik bukaerara ikuskizun bat prestatzeak pentsa baino lan gehiago dauka, arropa prestatu, musika aukeratu, gidoi txikia idatzi... dena guk egin behar izan genuen, baina eronka polita izan zen".

Betidanik izan dute harreman estua lekeitiarrek Kataluniatik etorritako su ikuskizunen taldeekin. Izan ere, gehienak Kale Antzerki jaialdiaren bueltan esku bat botatakoak dira. "Zaintza lanak egin ditugu, ikuskizunen muntaia, umezain ere aritu gara, aulkiak jartzen ibilitakoak gara... gure lehenengo emanaldia egitera iritsi ginen arte, nahiz eta oraindik ere aulkiak jartzen jarraitzen dugun" aipatu du barre artean Danele



Robles Deabruetako kideak. “Kale Antzerki jaialdian zer edo zer egiteko aukera suertatu zitzaigun eta baiezkoa eman genuen egun berean hasi ginen lanean” gaineratu du Roblesek. “Piroteknia eta antzerkiarekin interesa izan zezakeen jendearekin bildu eta Kataluniako Musols Sokarrats taldearekin harremanetan jarri ginen, Lekeition estreinatua genuen gure lehenengo emanaldia prestatzeko” kontatu digu Hodei Izarrak. Egund hartan bizitakoa egunean bertan bukatzeko penaz, aurrerantzean ere lanean jarraitzeko hautua egin zuen taldeak.

Herrian egindako emanaldiak modu berezian gogoratzen dituzte Deabruetako kideak. “Lekeition su artean jolasteko kultura daukagu eta herritarrek kalejira eta emanaldietan gurekin bat egiten dute, Kale Antzerkiak lagatako

kultura izango da horren arrazoia” dio Rodriguezek. Apurka-apurka bada ere, emanaldiak errepikatzen dituzten herrietan ere jendea su artean murgiltzen hasita dagoela esan dute baina Euskal Herrian suaren kultura Katalunian modu errotzeko oraindik lan handia egin beharra dagoela nabarmendu dute. “Mediterraneoan herri ohitura moduan ezagun dute sua, hemen kultura hori orain ezagutu dugu, eta lantzen ari gara baina Kataluniako jendartearekin ez dauka zerikusirik” Roblesen ustez.

#### **Kataluniara begira**

Azken aldian, Euskal Herria herrialde katalanei begira badago ere, lekeitiarrek aspaldi sustraitu zituzten bi herrialdeen arteko harremanak. Harreman berezi horretatik jaio zen *Foc ta ke!* katalunia-

» Ikusleen artean, suarekin beldurtu eta albo batean geratzen direnak ere asko dira, beraiekin haserretzeraino

» Ikuskizun asko aurrera ateratzeko zailtasunak izaten dituzte, jende faltagatik gehienetan baina dagoeneko 50 emanaldi eginak dituzte



rreren eta euskaldunen arteko musika eta su ikuskizuna. Bigarrenez herriko Kale Antzerki jaialdian parte hartzeko presatatu zuten, Kataluniako eta Aulestiko K-tum-K batukada taldearekin.

“Uda honetan Kataluniara joan eta *correfoc* ikuskizunik handienean parte hartzeko aukera izan dugu” azaldu du Izarrak. Bizitakoa ahaztezina izan dela kontatu digute, hitzez deskribatu ezina. Bi ikuskizunetan parte hartu dute: herri txiki batean *Mussols Sokarrats* taldearekin prestatutako *Foc ta Ke!* saioa egin zuten eta bigarren emanaldia, eta orain arte bizitako bereziena, Garcia *correfoc* ikuskizunean parte hartzea izan zen. Beste bederatzi talderekin batera, Kataluniako *correfoc* handienean parte hartzeko aukera izan dute. “Deabruen dantza izan zen hura, erretzeko eguna, nahi adina karretila erre genituen, gozatu ederra hartu genuen egun hartan” azaldu dute.

### Lanerako gogotsu

“Taldekide bakoitzak bere zereginak ditugu, familia, lana... askotan dena uztertzea zaila egiten zaigu, egiten duguna ofizioa baino afizioa delako” azaldu du Roblesek. Ikuskizun asko aurrera ateratzeko zailtasunak izaten dituzte, jende faltagatik gehienetan baina dagoeneko 50 emanaldi eginak dituzte, ez da zenbaki txarra. Egiten dutena gustatzen zaie eta sua bizi dute Deabruak. Horrenbestez, piztutako txispa amatatu ez dadin martxan jarraituko dutela aipatu dute, taldean parte hartzeko ilusioa duen guztiarentzat ateak zabalik dituztela gogoraraziz.

Hurrengo urtean taldeak bost urte beteko ditu eta hori ospatzeko zerbait handia eta berezia prestatzen ari dira.



“Oraindik ez dakigu non izango den ospakizuneko emanaldia baina Lekeitio guretzat plaza berezia da, eta herritarrei bere harrera ona eta parte hartzeko grina eskertzeko modu bat izan daiteke” aipatu du Izarrak.

### Sua tartean denean...


Suarekin jolasten dena erre egiten dela gogoratu digute beti etxeko nagusienek. Lekittoko Deabruak ere ondo ezagutzen dute esaera zaharra. Orain arte izandako istripuak txikiak eta garrantzi bakoak izan dira baina taldeko Rodriguezek udan Katalunian egindako egonaldian begia erre zuen eta sekula ikusi duten su jaialdirik handienean, Garcia *correfoc* jaialdian, parte hartu barik geratu behar izan zuen.

Istripu txiki edota handiak ekiditea sarritan ezinezkoa izaten dela oharta-


razi dute. Hargatik, deabruak ikuskizun guztietan nahi eta nahi ez segurua kontratu behar izaten dute.

### Sua ezezagun eta arrotza denean...


Herri askotan haserreak ere piztu dituzte Deabruak. Lehenengo aldiz bisitatutako herrietan ikusmina, haserrea eta batzuetan txarto ulertuak sortzen direla aipatu dute taldeko kideek. Denetariko erreakzioak ezagutu dituzte Deabruak bost urtetako ibilbidean. “Askok gurekin batera parte hartzen dute ikuskizunean, gurekin batera gozatu egiten dute” azaldu du Roblesek. Baina suarekin beldurdu eta albo batean geratzen direnak ere asko omen dira, hauetako asko beraiekin haserretzeraino. “Jakitun gara ikuskizun berezi bat egiten dugula, batzuei gustatzen zaie eta beste batzuei ez, beti ezin da denen gustua ase”. ■




**Souvenirs  
aikupe  
delikatessen**




**Souvenirs  
izaro  
delikatessen**




Aiesta




ZURE  
txokoa



AIETEKO  
2014



TOTO  
2015



PAXI EZKURRA  
20-05-2015

## EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu pertsonalizatuetan adituak

**Kale Nagusia, 16  
San Jeronimo, 14  
Portu, 14**

20003 Donostia · Euskal Herria  
☎ 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com

Ø2000 Jaia

**Irailak 24**

**Galarreta  
Orona Ideo**

**10:00-14:30**

**Azoka**

Bertakoa eta/edo  
ekologikoa



**Pastaketa**

Basatxerri: txerrikoa brasan

Diametro200: arroz salteatua barazkiekin

EkoTaloa: ekologikoki egindako taloak

Haur txokoa  
begiraleek  
dinamizatuta.

Diametro200 kafetegia eta self-service-a  
irekita egongo dira.

**10:00 Hitzaldiak**

Zero Auditorioan.

**13:30 Bertsoak**

Maialen Lujanbio eta  
Unai Agirre

**14:30 Kontzertua**

KALAKAN

Sarrerak azokan eskuratuko dira  
10:30-11:30ak bitartean.

Ttanta garagardoaren postuan,  
erosi garagardo bat (2€) eta sarrera doan!

Antolatzaileak:

Ø2000 slow  
kafetegia



Laguntzaileak:

Orona  
fundazioa





# KULTURKRITIKA

» LIBURUA

## Ipuin bat, besterik ez



Xabier Etxaniz Erle



### Otsoaren ipuina VÉRONIQUE CAPLAIN

Irudigilea: Grégoire Mabire  
Itzulpena: Aiora Jaka  
Tarttalo, 2015  
28 orrialde; haurrentzat

“Aitaxo? Irakurriko diguzu ipuin bat?”. Galdera inozente hori dugu album honen hasieran; eta itxuraz oso kontu sinplea eta inozentea dirudiena korapilatzen joango da aurrera egin ahala.

*Otsoaren ipuina* du izenburu Véronique Caplain eta Grégoire Mabireren liburu honek eta gure artean, gizakion artean, otsoa beti animalia gaiztoa, indartsua eta indarkeria zalea, erasotzen eta hiltzen duen animalia moduan ikusi izan bada, pentsa zer usteko duten ahuntzek... Istorio honetako protagonistak Aker aita, eta Antton eta Xixili antxumeak dira eta.

Narratzaileek, testuaren bidez eta irudien bidez istorioa narratzen diguten biek, aita eta umeen arteko istorioa kontatzeaz gain, aita irakurtzen duen liburuarena ere azaltzen digute, bien artean egoera paraleloak sortaraziz jolas polita sortuz, gainera. Aita irakurtzen hasi da: “Negua da eta hotz handia egiten du kanpoan. Basoan, otso bat janari bila dabil. Egunak eta egunak eman ditu jan gabe, eta gose da, hain gose, non hortzak dardarka hasi baitzaizkio: KLA! KLA! KLA!”. Une horretantxe, zarata arraro bat entzun dute kanpoan: KLA! KLA! KLA! (...) Itzul gaitezen gure ipuinerara: “Herritarrak beldur dira; hain beldur, non ateak giltzaz itxi baitituzte. KLIK KLA!”. Une horretantxe, zarata arraro bat entzun dute etxean: KLIK KLA!”. Aita irakurtzen ari den liburuaren egoerak beren etxean, beren inguruan errepikatzen direla sentitzen dute; eta ikaratu egiten dira antxumeak. “Otsoa izango da? (...) Bai, zera! Ez da posible. Gure basoetan ez dago otsorik”.

Eta aitaxoren erantzun horrekin antxumeak lasaitzen direla ematen du.

Ikusleak, baina, argi eta garbi nabarrituko du umetxoei erantzun hori eman arren aker aitaren begiradan gero eta larritasun, gero eta ikara handiagoa ikusten dela.

Amaieran, jakina, irakurlearen irribarrea bilatzen da. Hain adoretuak diren horiek ere beldur izaten direla; aitaxok ere bere burua ezkuta dezakeela eta ezkututzen duela kuxinen azpian! Eta orduan umetxoek “Ipuin bat besterik ez da. Ipuin bat, besterik ez”, esanez amaiera ematen diote liburuari (irakurtzen ari ziren liburuaren besopean, lasai, besaulkian erdi jolasean, harridura eta kuriositate aurpegia dutelarik, kuxinen azpian ezkutaturik, aurpegi erdia bakarrik bistan duen aitari begira).

Istorioan ageri den narrazio honez gain badira irudien bidez azaltzen zaizkigun beste kontu asko. Sentimenduen eta sentsazioen deskribapenak, espazio eta tokien sinpletasunaren bidez ikuslearen begirada garrantzitsuenera bideratzeko asmoa... eta baita ere aitaxoren presentzia etxean, etxeko lanak egiten, sukaldean, arropa garbitzen eta zintzilikatzen, haurren ardura bere gain hartuz. Alegia, umorezko kontu horrez gain, otsoaz gain, beste kontu ugari erreparatze-moduko istorio bitxia da *Otsoaren ipuina* hau. ■



Aiora Jakak itzuli du  
“Otsoaren ipuina”.

## » TELEGRAMA

Irailaren 24an **Xilaba Bertsulari Xapelketaren lehen kanporaketa** Donibane Lohitzuneko Ravel entzutegian, 17:00etan: Amets Arzallus, Egoitz Zelaia, Kerman Diaz, Miren Artetxe, Nahia Sasco eta Ramuntxo Christy bertsulariak **STOP José Ocariz**ek *El Madrid de Blas de Otero* liburua aurkeztuko du irailaren 26an, 19:00etan, Iruñeko Katrakrak aretoan **STOP** Bilboko Azkuna Zentroan (Alondegian), irailaren 28an (20:00etan) **Maysaloun Hamoud** zuzendariaren *In Between* filma (Israel/Frantzia) emanen dute jatorrizko arabiera/hebreera hizkuntzetan **STOP**

## » DISKOA

## Itsaso zabalagoetarantz



Iker Barandiaran



### Lurrik ez begi bistan

IZEBERG

Autoekoizpena, 2016

Horixe da Euskal Herriko musika panoraman gertatzen dena, hain zuzen ere. Izebergaren muturra fokuen azpian eta ur azalean denon begi bistan egon arren, gainontzeko eszena guztia oharkabean gelditzen dela burua ur azpian sartzen ez badugu behintzat. Eta nork dauka jakin-mina eta gogoia norbera "busti" eta azpian dagoena arakatzeko? Bada, zoritxarrez, jende gutxi. Baina guk besoa ukondoraino sartu eta gehienetan egin ohi dugun bezala, horietako bat atera dugu orriotara.

Oharkabean izan dut laukote honen berri eta beraien DNA eta zazpi abizenak Usurbilen daudela egiaztatu ostean, ohartu naiz talde honetako partaideak gazteak izanik ere zakur zaharrak direla. Hain zuzen ere, herri gipuzkoar horretan azken urteetan izan den ekimen musikalaren protagonista sutsuak direla laurak. Hona hemen Izebergaren aurrekariak: hala nola, Odolaren Mintzoa rock taldea, Mendeku Itxua heavya eta Hotzikara thrash-metaleroa, hain zuzen

ere. Eta diskoa osatzen duten zazpi kantuak herrian bertan, Haritz Harreguyk gidatzen duen Higain estudio dotorean grabatu dituzte. Zertarako, bada, kanpora jo, herrian bertan luxuzko halako profesionalak izanda? Kantuen nahasketak, berriz, Harreguyrekin harreman estua

duen Juan Hildagok egin du Madrilgo Mastertips Mastering-en.

Aipatutako musikariek jauzi bat harago egin nahi izan dute eta iraganeko heavy estiloa eta thrasharen gordintasuna melodia borobilagoak dituzten konposizioetan barneratu dituzte, rockean ondo blaitutako doinuen agindupean. *Gordeleku bat* kanta energiadun pop-rocka da, distiratsua, oso garbia eta hard-rocketik eta heavytik ere edaten duena. Abesteko erak Gorosabel anaiak (Su Ta Gar / EH Sukarra) ekartzen dizkit gogorra. *Zainetan*, berriz, xuxurlatuta abiatzen da Loreleiren antzeko doinueta, baina intentsitatea gehituta Governors-en jantzia hartzen du ia eta bere baitan desertuko riffak ere batzen ditu. Dotorea! *Har(r)ia*kek ere garapena bizi du bere baitan, eta popetik, power-popa ezagutu, hard-rocka dastatu eta wah-wah hankapetakora igarotzen da, gaiztotuz. *Eraldatu* eraldatzailea eta zapaltzailea da norbaiten buruan ideia sortu zen unetik: baxu sarkorra, gitarra "killer" a eta tarte metalero zein stonerrak ditu. *Zabaldu atean* antzematen da odolean daramaten heavyaren kadentzia duen balada garratza, nahiz eta hardcore melodiko metaleroa ere bere gain hartzen duen. *Itzalitako izarrak*en ere thrash-metalak bere lekua hartzen du. Eta, azkenik, *Insomnioen gaua* rock jostariaren eta heavyaren arteko abentura da. Hitzak idazteko, baina, Usurbildik kanpo jo dute. Beñat Gaztelumendi, Haritz Casabal eta Jokin Labayenen laguntza izan dute. ■

Izeberg talde usurbildarra.





# Jazz gauak Iruñean

## EMANALDIA

Jazz kontzertua eta *Jam session* irekia dugu gozagai, astearte gauetan (irailtik ekainera bitartean), Iruñeko Garazi tabernan.



Julen Leuza Izkue

@JulenLeuza

Asteartea da eta Iruñeak ez du kultur eskaintza handirik gauerako, ohiko moduan. Urrun geratu dira egunero rock eta pop kontzertuak aditzeko aukera zegoen garaiak, diotenez, guk ez baititugu ezagutu. Arratsalde lan egiten dugunok ez dugu arazo handiegirik astean zehar gauetz kontzertuak aditzeko eta bide batez zerbeza pare bat hartzeko. Hala bada, lanetik atera eta afaltzeko geratu gara alde zaharrea. Gaur hasiko dira berriro jazz kontzertuak Garazi tabernan, eta joatea erabaki dugu. Laz arte asteartez gain ostegunetan ere bazegoen jazz musika entzuteko aukera Infernu tabernan (Kaldereria karrikan biak), baina azken *Jam session* hau bertan behera geratu zen parte hartzaile nagusiek hiria utzi zutenean. Ez da harritzekoa Iruñean jazz musikari ugari egotea, goi mailako kontserbatorioan espezialitate honetako ikasketak ematen direla kontuan hartuz (hau bai dela harritzekoa).

Formatua beti da bera: lehen txandan kontzertua eta gero *Jam session* parte-hartzailea. Gaurkoan kontzertura datorren hirukotea ez da makala: Al-berto Arteta saxoan, Kike Arza kontra-



baxuan eta Juanma Urriza *Boli* baterian. Oholtzara igo dira eta hasi da Arza kontrabaxuarekin marrazki eta motibo azkarrak jotzen. Inprobisazio hutsa dela uste genuenean, sartu dira beste biak, batera. Lehen pieza amaitu eta gero eskerrak eman dizkiote gerturatu den publikoari (taberna bete dago) eta azaldu dute haien obra propioak direla, entseatu gabe jotzera animatu direla gehituz. Entseatu edo ez, kalitatea muturrekoa da. Egitura ezberdinak antzematen dira piezetan, guztietan inprobisazioari leku handia emanez. Estiloa ez da klasikoa, armoniek nirea bezalako entzumen tradizionala momentu oro engainatzen dute, eta egia esan adibidez jazz estandarrekin eginiko *Jam session* bat baino askoz ere zailagoa da entzuteko hau, baina joleen gaitasun musikalak entzulea kontzertuan guztiz murgiltzea lortzen du, bateria-jolearen kasuan zerbait hipnotikora helduz. Ordu bete inguru egon eta gero, publikoaren estimuarekin amaitu dute kontzertua.

Tarte bat pasata, *Jam session*ari eman zaio hasiera. Orokorrean kontserbatorioiko ikasleak dira parte hartzaileak, baina beti dago handik edo hemendik

etorri den musikaririk. Aurpegi asko ezagunak dira, asteartero hitzordura huts egiten ez dutenak. Baxua (kontrabaxua gaur), bateria eta gitarra da oinarria normalean, eta gero teklatura eta haize instrumentuak gehitzen dira. Denen artean estandar ezberdinak aukeratzeko dituzte (40-50 hamarkadako *be-bop* klasikoak izaten dira gehienak) eta gaia jotzen dute, gaiaren akordeen gainean bakoitzak inprobisazio tarte egiten duelarik, hartara denek berriro gaiarekin amaitzeko. Inprobisazio munduak badu mirari bat, gaia hamai-ka aldiz entzun baduzu ere soloek beti emango dizutela zerbait berria.

Horrela bada, gaua luze egiten da astearte gauetan taberna honetan. Hainbat faktorek xarma handia ematen diote, adibidez Iruñea bezalako hiri txiki batean, non musika modernoak ez duen inoiz garrantzi handirik eduki, halako musika eta musikariak topatzea, jotzeko gogoz beti. Hasieran aipaturiko kultur eskaintza urriak garrantzia handia ematen dio dagoen edozeri, eta honez gain, masifikatu gabeko edozein fenomeno beste modu batean miresten da beti. Musikak gauza liluragarri hauek ditu. ■





## Aitor eta Amaia Merino. Bi zinegile, ahots bakarra



Zineman ezagutu ditugu familia bereko zuzendari bikoteak: The Wachowskis, Dardenne eta Coen anaiak, esaterako. Gurean ere baditugu zinema eta mundua ulertzeko era partekatzen duten neba-arrebak: Merinotarrak. Haien azken filmei buruz galdetuta, ahots bakarrez erantzun digute. Donostian eman dituzte azken asteak, Ikusmira Berriak egitasmoaren bidez egoiliar aritzeko jaso duten diru-laguntzari esker. *Fantasía* da esku artean duten azken lana.

## “Euskal Herrian pelikula asko falta da egiteko”



Arantza Santesteban

@a\_santesteban

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

### Asier ETA biok

“*Asier ETA biok*-en oinarrian kanpokoei kontaktzeko beharra zegoen, biontzat. Nahiz eta pelikulan ez garen biok agertzen, Aitorren pertsonaian biok gaude, kanpoan bizi diren bi euskaldunen begirada dago. Euskalduneei kontaktzea erabat ezberdina izango litzateke; politikoki pelikula oso oinarritzakoa da, minus bostetik hasi behar ginen kontaktzen. Gure istorio bat da, kanpokoei kontaktua”.

**Neba-arrebak zarete, baita elkarrekin lan egiten duten bi zinegile ere.**

Zuzendaritza lanetan gure lan guztiak elkarrekin egin ditugu. Film labur batekin hasi ginen, *El pan nuestro*, eta asko ikasi genuen lan horrekin. Txikitatik harreman berezia izan dugu, polita, eta hori gure lanean islatzen dela uste dugu. Antzeko gauzak gustatzen zaizkigu eta mundua antzeko moduan sentitzen dugu. Umorea ere antzekoa dugu; *Asier ETA biok* grabatu genuenean, esaterako, elkarri barrea eragiteko idatzi genuen Aitorren *off* ahotsa.

**Non dago zuen arteko oreka?**

Neba-arrebak gara, baina batez ere, bi indar handiren batuketa da gurea. Kontrastean sortzen da gure lana, elkarrekiko interesa zentzu horretan motor handia da. Biok formatu gara antzerki eskola berean, Madrilen, baina aldi berean Ekuadorren (Amaia) eta Madrilen (Aitor) garatu du bakoitzak bere ibilbidea. Gure begirada elkarrekin josten

dugu; bata pentsatzen duena besteari kontatu arte ez da guztiz osatzen. Ziur aski horrek sortzen du gure oreka eta bion arteko indarra.

**Patricio Guzmánek dio zinea egiteko distantzia ezinbestekoa dela. Urruti al zaudete zuek?**

Gure ustez, plano ezberdinak daude zinean distantziaren gaiari dagokionez. *Asier ETA biok* filmean, Aitor pertsonaia bat zen, kontakizun autobiografikoa zen eta beraz, ez zegoen modurik material horretatik urruntzeko. Aldi berean, pelikula egiten ari zarenean, momenturen batean, pertsonaia horretatik aldentu behar zara, ahaztu zu zarela pelikulan ateratzen dena eta pertsonaia soil bezala tratatu. Horrek ematen dizu distantzia eta hori gabe ezinezkoa da pelikula egitea.

**Tarteko distantzia bat behar da orduan?**

Nolabait, bai. Lanean hasten zarenean momentu ezberdinak daude. Prozesuaren hasieran dena dira intuizioak, beha-



*"Zinemaren tresnak ezagutzen ditugu nagusiki, eta zinema gustatzen zaigu hasieratik bukaeraraino. Oso prozesu magikoa da guretzat. Gure sentimenduak zinemaren bidez kontatu nahi ditugu eta ez beste modu batez".*

rrak, sentimenduak. Ezin zara urrundu, ez duzu ulertzen zer gertatzen ari den eta barruraino sartuta zaude. Baina materialarekin lanean luze eta sakon ibili ondoren, galdera inportanteak egiteko unea iristen da eta horiek ematen dizute distantzia egokia: zertarako egiten ari naiz film hau? Zein da nire plana? Nola egingo dut kontaketa? Ez-fikziozko pelikuletan hori oso inportantea da, daukazu materialaren kontzientzia hartu eta zure aukerez ohartu beharra daukazu.

#### **Asier ETA biok filmak libilbide luzea egin du. Balantzearekin ase?**

Oso balantze ona egiten dugu, mundu osoan ikusi da pelikula. Pentsa, azkenean Indonesiako zine festibal batean saria jaso genuen. Hango hizkuntzan idatzitako e-mail bat jaso genuen eta sari gisa disko gogor bat eman ziguten [barrak]. Oso pozgarria da jakitea 30.000 pertsonak baino gehiagok ikusi dutela pelikula zine aretoetan. Baina bestalde, banaketarekin izan dugu arazorik; Va-

lentzian edo Sevillan ez da egon aukerarik ikusteko, Madrilen ere arazo ugari, telebistan zer esanik ez... Gaia dela-eta problemak izan ditugu, baina orokorrean saldoa pozgarria da guretzat.

#### **Orain *Fantasia* filmean lanean ari zarete. Zertan da proiektua?**

Lehenengo fasean gaude, sorkuntzaren hasieran. Erabat sartuta gaude daukagun materialean, ideia zaparradaren erdi-erdian. Gure gurasoei buruzko pelikula da. Ordu asko grabatu ditugu eta oso material intimoarekin egin dugu topo; hunkituta gaude hartara. Kontraste pelikula bat da, alde bat oso xamurra, bestea izugarri deserosoa. Gure galdera da ea orain merezi ote duen gure gurasoen intimitatea azaleratzea edo ez. Zertarako erakutsi hau? Horiek dira momentuz gure buruan dauden galderak eta hortik tiraka ari gara lanean.

#### **Zergatik zinema dokumentala?**

Gure inguruan gertatzen denari buruz

hitz egin nahi dugu eta hori irudiak, soinua eta agertokiak nahastuz egin nahi dugu. Guk zinemaren tresnak ezagutzen ditugu nagusiki, eta zinema gustatzen zaigu hasieratik bukaeraraino: argazkia, musika, dramaturgia, pertsonaiak eta aretoan ikusgai jartzeko lan hori guztia. Oso prozesu magikoa da guretzat. Azken lanetan esaterako, gure gurasoekiko maitasuna kontatu nahi dugu, edo Asierrekiko ditugun sentimendu bereziak; hori guztia zinemaren bidez kontatu nahi dugu eta ez beste modu batez.

#### **Zer pentsatzen duzue Euskal Herrian egiten den zineari buruz?**

Euskal Herrian, beste leku askotan bezala, pelikula asko falta da egiteko. Gure arazo eta errealitatea islatzeko kontakizun asko falta da. Eta azken urteetan oso beharrezkoak ziren pelikula asko ez dira egin. *Asier ETA biok* filmarekin ohartu ginen horretaz, jende batek beharra zuela bere burua islatuta ikusteko narrazioetan. ■





Mendia eta zinemaren arteko harremana aspaldikoa da. Gaztetan filmatutako "Nik ikastolatik bizirik atera nintzen" persierazko bertsoak arrakasta handia izan zuen.

## Idoia Mendiak onartu du bere kanpaina Irango pelikula bat dela

Donostiako Zinemaldiko alfonbra gorrian egin du Idoia Mendia PSEko lehendakari-gaia hauteskunde kanpainako mitin zentrala eta adierazpen harrigarriak egin ditu: "Inkestak ikusita argi dago herritar asko ez direla ari ulertzen gure mezua. Baina benetan sakona da. Kontua da hemen jendea nazionalisten komedia arinetara ohituta dagoela eta guk autore zinema egin nahi dugu hauteskunde hauetan". Kazetariak galdetu diote ea zergatik bere


kanpaina ez den lehiatu Sail Ofizialean, eta Mendiak erantzun du Zinemaldia oso *mainstream* dela bi aste irauten duen film bat proiektatzeko. "Eta pena da, izan ere Pedro Sánchez primeran aritu da, ezagun du gure liderra izan aurretik aktore venezuelar bat zela". PSEren kanpaina osorik ikusi duen kritikari batekin kontaktuan jarri da Beranduegi iritzi kualifikatu bila: "Filmikoki ondo dago", azaldu du. Eta gehitu du: "Baina moootel, ze aspergarria".

### SAREAN ARRANTZATUA

#### Isolamenduko moduluetan ere eskaintza berezia



#### Barkatu eragozpenak diote gainera



## Urteko eufemismo onenaren saria eman diote Alfonso Alonsori

EAEko hauteskundeetarako PPko zereन्द्रaburua, Alfonso Alonso, garaile suertatu da Europako Politikari Profesionalen Elkarteak antolatzen duen Gifmi uan Grami sariketa ospetsuan, Eufemismo Onena sailean hain justu ere. ETB-2ko hauteskunde eztabaidan Podemoseko Pili Zabalarri esandako hitz dagoeneko historikoei esker lortu du sari preziatua Alonsok.

Alonsok poz handiz hartu du saria, nola ez: "Ilusio handia egin dit; behintzat zerbait irabaziko dut hauteskunde hauetan". Biharamunean Alonsok Zabalarri barkamen eske bidalitako mezua, berriz, finalista izan da Hipokrisia Finaloan, baina azkenik bigarren geratu da, iragan abuztuan errefuxiatuentzako errespetua aldarrikatu zuen Angela Merkelen ostean.



"Sari hau izan daiteke nazioarteko politikara salto egiteko tranpolina", esan du Alonso Alonsok.




# EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 6,5€ SOILIK

ARGIA HILERO, HILEAN 3,5€ SOILIK




943 371545  
HARPIDE@ARGIA.EUS  
WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA

Urte osoko harpidetza	
<input checked="" type="checkbox"/> ARGIA Erean jaso nahi dut	
<input type="checkbox"/> ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ SOILIK	
<input type="checkbox"/> ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 6,5€ SOILIK	
<input type="checkbox"/> ARGIA HILERO, HILEAN 3,5€ SOILIK	







# PUNTADAZ PUNTADA TXIKITIK ERAGITEN ARGIA EGUNA 2016

URRIAK 1, ZAPATUA, ONDARROAKO ITSASAURRE PLAZAN

**10:00** OROIMENAREN TXANGOIA SATURRARANERA  
Ondarroako Historia Zaleak elkartearekin

**11:00** ONGIETORRI EKITALDIA

**11:15** JOLAS HEZITZAILEAK  
Eskulanak, jolas erraldoia, zesta-punta, Nendo Dango,  
hankapaluak, dantza tailerra...

**11:15** HERRI ERAGILEEN AZOKA IREKIERA

**12:00** ARGIAZALEEN TOPAKETA

**14:30** HERRI BAZKARIA + BERTSO SAIOA  
Eskualdeko eta garaiko produktuekin osatutako menua.  
Bazkalostean Bertxio, twitter bidezko bertso saioa, Iratxe Ibarra,  
Nerea Ibarzabal eta Xabat Galletebeitiarekin.  
Prezioa: 15 euro (langabetuek, langile prekarioek eta ikasleek 12).  
Txartelak eskuratzeko: ARGIA (943-37 15 45 edo [denda@argia.eus](mailto:denda@argia.eus))

**17:00** KALE ANTZERKIA  
Abarka taldeak Argia  
Egunerako beren-beregi  
sortutako antzezlanak

**18:00** EUSKAL HERRIKO III.  
NORTASUN AGIRI ARROTZ  
JAURTIKETA

**19:30** KONTZERTUAK  
Jon Basaguren  
Occhi di Farfalla

Egun osoan zehar, "Trantsizioak" erakusketa + kale animazioa:  
erraldoiak, txistulariak, trikitilariak, batukada...

12:00etatik 14:00etara Radixu irriaren zuzeneko emanaldia jaigunetik

**ESKERRIK ASKO EGITARAUA OSATZEN LAGUNDU DUTEN GUZTIEI**